

Gasteizko

Herri Programa 2023

ehbildu

ehbildu

0.- Sarrera	5
1.- Erronka demografikoa eta zaintza krisia	8
1.1.- <u>Politika sozialak</u>	8
• Adineko pertsonak	8
▪ Proiektua: San Prudentzioko modulu anitzeko gunea	11
▪ Proiektua: Ariznabarrako zaintza etxea	14
• Aniztasun funtzionala	16
• Haurtzaroa eta familiak	16
• Gizarteratzea	16
• Zaintza komunitarioak	19
1.2.- <u>Osasuna</u>	20
2.- Ekonomiaren eraldatzea eta trantsizio ekologikoa	21
2.1.- <u>Enplegua eta ekonomiaren sustatzea</u>	21
• Enplegua	21
• Industria	22
▪ Proiektua: Betoñu berri	24
• Zerbitzuak	28
• Turismoa	29
• Lehen sektorea	30
• Ekonomia sozial y solidarioa	32
2.2.- <u>Hiri ereduak</u>	33
• Hirigintza	33
▪ Proiektua: Sansomendi 40+	35
• Etxebizitza	39
• Mugikortasuna eta espazio publikoa	40
▪ Proiektua: Araba erdialdeko aldiriko trenak	43
2.3.- <u>Klima larrialdia eta energia trantsizioa</u>	45
• Ingurumena	45
▪ Proiektua: Gasteiz eta Lautadako biosferaren erreserba	47

ehbildu

• Energia	50
• Hondakinak	51
2.4.- <u>Fiskalitatea</u>	53
3.- Bizitzeak merezi duen hiri anitz eta bizia	55
3.1.- <u>Hiri parte-hartzailea eta gardena</u>	55
• Gobernantza, parte-hartzea eta gardentasuna	55
• Auzo elkarteak	57
• Gizarte etxeak	57
3.2.- <u>Hiri feminista</u>	58
• Gobernantza feminista	58
• Bortxakeria matxistatik udal librea	58
• Emakumeen ahalduntzea	59
• Maskulinitate berriak	59
3.3.- <u>LGTBI+ hiria</u>	60
3.4.- <u>Hiri gaztea</u>	61
3.5.- <u>Hiri kulturzale eta aktiboa</u>	64
• Kultura	64
▪ Proiektua: Oihaneder sortegia	66
▪ Proiektua: Iradier Arenaren erreforma	68
• Aisialdia	71
• Kirola	71
3.6.- <u>Hiri euskalduna</u>	73
3.7.- <u>Hiri hezitzailea</u>	76
• Segregazioa	76
• Hezkuntza zentroetan esku-hartzeak	76
• Udal hezkuntza jarduerak	77
• Udal haurreskolak	77
• Hezkuntza komunitatea	77
• Hezkuntza ez arautua	78
3.8.- <u>Eskubideak dituen hiria</u>	79
• Giza eskubideak	79
• Memoria	79
• Segurtasuna	81

ehbildu

3.9.- <u>Hiri solidarioa</u>	83
• Bizikidetza	83
• Lankidetza	84
3.10.- <u>Hiria baino gehiago: udalerriko herriak</u>	85

ehbildu

O. SARRERA

Nire hiriri begiratzan diodanean, ikusten dudana gustatzen zait. Bertako kaleak, auzoak eta herriak gustatzen zaizkit, baina, batez ere, bertako pertsonak gustatzen zaizkit. Zu bezalako jendea ikusten dut, berdinaletasunaren, justizia sozialaren, gure ingurumenaren, feminismoaren defentsaren, gure kulturarekiko eta ondarearekiko gustuaren... balioak partekatzen dituzuenak. Batez ere, hobeto bizi nahi duen jendea ikusten dut, konformatzen ez zireten jendea. Ikusten dut onena nahi duzuela Gasteizentzat eta hemen bizi garenentzat. Horixe da nire eta Euskal Herria Bildu osatzen dugun guztion ahalegina: aurrera egitea eta maite duzun Gasteiz eraikitzea. Egin dezakegu. Geure eskuetan dago. Oraingoan bai.

Bakoitzari dagokigu geure hondar alea jartzea, etorkizun hobe eta partekatu hori eraikitzeko. Udala beste administrazio bat ez garelako uste dudana horietakoa naiz. Herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea gara, noski, baina hori baino askoz gehiago gara edo izan beharko ginateke. Uste dut udalari funtsezko zeregina dagokiola geure bizilagunen defentsan eta sustapenean. Gure eskumen zehatzetatik haratago, udalak beti zaindu behar du ongizate kolektiboa. Jarrera proaktiboa izan behar dugu irtenbideak bilatzeko orduan, eta gure herritarren beharrei erantzuteko aliantzak ehunzerakoan gainerako administrazioekin eta mota guztietako eragile sozial eta ekonomikoekin, publiko zein pribatuekin.

Gure herritarrei beren nahiak, asmoak eta ametsak betetzen lagun diezaieketen politika eta ekintza guztien sortzaile, bultzatzaile eta konplize izan behar dugu. Azken batean, gure iparrorrazak beti izan behar du aurrera egitea, pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzea. Eta modu partekatuan egin behar dugu, erakundearen ateak irekiz hobetzeko ideiak eta proposamenak dituen ororen parte-hartzeari eta ekarpenari. Benetan uste dut entzutea, jendeari arreta eskaintzea, ez dela ahultasun bat, baizik eta oinarri bat dela partekatutako hiri proiektu baterako, non jende guztiak bere burua aitortua izango duen, bakoitzaren iritzi eta nortasunarekiko errespetuan oinarrituta. Guztion eta guztiontzako Gasteiz bat.

XXI. mendeko lehen laurdena betetzera hurbiltzen ari gara, eta ikusten dugu gure mundua abiadura handian aldatu eta aldatzen ari dela. Mundu mailan eta tokian toki ditugun erronka eta ziurgabetasunen aurrean, ziurtasunak eskaintzea dagokigu, etorkizun hobe baterako bidea egitea dagokigu. Nire gain hartzen dut dagokigun zeregina: Gasteizerako hiri-eredu bat diseinatzea, non erronka horiek aukera bihurtzen diren, eta non aukerak hobekuntza bihurtzen diren. Zerbitzu gehiago eta hobeak, arreta gehiago eta hobeak, enplegu gehiago eta hobeak. Bizitza hobeak.

Geure helburua argia da: Gasteizko ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren eraldaketa eta modernizazioa, etorkizunean egungo ongizate-maila handitzeko. Gure herritarrak hobeto bizitzea ahalbidetuko duten proiektu eta politika publikoak jarriko ditugu martxan.

Demografia eta zaintzaren erronka eta larrialdi klimatikoaren krisia dira datozen urteetan erantzun behar diegun erronka globalak bi. Erronka horien eskalak argi eta garbi gaituzten ditu gizarte edo ingurumen politiken espazio tradizionalak, eta tratamendu integrala eta zeharkakoa eskatzen du. Erakunde guztietatik erantzun berriak ematea eskatzen digute, baita udaletik ere. Gure adinekoei arreta duina, kalitatezkoa eta publikoa bermatzea gaur egun, baina baita etorkizunari begira ere, beharrezkoak diren baliabide guztiekin. Zaintzeko eta zainduak izateko oraina eta etorkizuna. Eta, nola ez, tresna guztiak trantsizio ekologiko baten zerbitzura jartzea, etorkizun bat izateko, ez bakarrik hiri gisa, baizik eta planeta gisa. Uste dut Gasteiz berriro ere klima aldaketaren aurkako borrokaren erreferente bihurtu behar dugula. Hiri berritzailea eta aitzindaria izan behar dugu, eta gure tamainako beste hiri batzuei erakutsiko diegu

ehbildu

eraldaketa horrek eskaintzen dizkigun aukera praktikoak energia aurrezpenean eta eraginkortasunean, energia garbien sorreran, hondakinen kudeaketan edo ekonomia zirkularrean.

Erronka demografikoa eta trantsizio ekologikoa islatuko dira gure hirigintzan, etxebizitzan, mugikortasunean, industrian edo zerbitzuetan. Gure izaeraren eta hiri-ereduaren funtsezko elementuak dira. Udaletik enplegu duina eta kalitatezkoa eskaintzea eta aberastasuna sortzea bultzatuko dugu; gure oinarri industrialak mantendu eta indartuko dugu, eta behar diren egokitzapen guztiak egiten lagunduko diogu, eredu iraunkoragoak lortzeko; gure zerbitzuak, gure merkataritza eta gure ostalaritza modernizatu eta eguneratuko ditugu; apustu argia eta irmoa egingo dugu etxebizitza eskuragarria eskaintzeko, bereziki geure gazteentzat; mugikortasun osasungarria, iraunkorra eta segurua antolatuko dugu.

Horiek dira, zalantzarik gabe, bizi-proiektu bat eraikitzeko oinarriak: enplegua, etxebizitza, zaintzak... Baina gure grina da Gasteiz zerbait gehiago izatea. Ez bakarrik bizitzeko leku bat, baizik eta hiri bat, udalerrri bat, bizitza merezi duena. Hori, jakina, geure izaera irekia eta tolerantzia indartzea da, pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzea. Horrez gain, giza eskalako Gasteiz berreskuratu behar da, aldiriko zerbitzu publikoak eskatzen dituzten bizilagunena, eta hezkuntza, kultura, kirol eta aisialdiko eskaintza askotarikoa eta aberatsa dituen, besteak beste.

Programa honetan 200 neurri baino gehiago bildu ditugu, Gasteiz egungo erronka eta ziurgabetasunen aurrean norabide partekatuan jartzen dutenak, gauzak egiteko modu hobea eskaintzen dutenak, eta maite eta merezi duzun Gasteiz eraikitzen lagundu nahi dutenak.

ehbildu



Merezi duzun Gasteiz EGINGO DUGU!

Rocio Vitero

Euskal Herria Bilduren Gasteizko alkategaia

1. ERRONKA DEMOGRAFIKOA ETA ZAINITZA KRISIA

1.1.- Politika sozialak

- Adineko pertsonak
 - Adinekoak zaintzeko eta artatzeko itun sozial eta politiko handia bultzatzea, honako helburu hauekin:
 - Epe labur, ertain eta luzean erronka demografikoari aurre egiteko behar diren baliabideak eta finantzaketa publikoa blindatuko dituen ibilbide-orri partekatu bat diseinatzea.
 - Zaintzen hobekuntzan eta duintzean aurrera egitea, bai hartzaileentzat eta haien ingurune hurbilentzat, bai zainketak ematen dituzten langileentzat.
 - Zaintzen eta adinekoen arretaren aldeko itunaren edukiak diseinatzen eta garatzen lagunduko zaio Udal Zaintzen Aldeko Mahaitik, zaintzaren sektore guztietako agenteek parte har dezaten.
 - Herritarrek itunaren eta haren edukien definizioan parte-hartze aktiboa izan dezaten bultzatzea, Zaintzen Aldeko Herritarren Batzarra abian jarritz..
 - San Prudentzio Bizirik:Er aberritzea eta berregituratzea, egoitza ohia eta inguruko eraikinak 2. eta 3. mailako mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko modulu anitzeko konplexu bihurtu dadin. (11. orrialdea).
 - Detekzio-sare indartsu eta proaktibo bat sortzea, auzo edo eremu bakoitzeko adinekoen errealitatea ezagutzeko, honako elementu hauekin:
 - Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen arreta indartzea, indibidualizatzea eta dibertsifikatzea, gizarte langileak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako gainerako laguntza-profesionalak indartuz.
 - Profil profesionalak dibertsifikatzea eta espezializatzea, erabiltzaileen izaera ezberdinei modu proaktiboan erantzun ahal izateko.
 - Adinekoen auzoka arreta emateko guneak sortzea, zerbitzu integral gisa, euren beharretan oinarrituta eta euren egoerari egokitutako ezaugarriekin: espazioa, altzariak, giza baliabideak, etab. Legealdi honetan, esperientzia pilotu gisa, adineko gehien dituzten

ehbildu

udalerriko hiru auzotan jarriko dira martxan: El Pilar, Zaramaga eta Arana.

- Prebentzio radarrak ezartzea, bakardade egoerak, mendekotasun egoeren hasiera, edo adinekoen bizitza zailtzen duten premia berriak ezagutzeko. Gizarte eta familia babesik gabe bakarrik bizi diren pertsonen jarraipena egitea, lehen mailako osasun-arretako sarearekin koordinatuta. Zuzeneko harremanean eta zaintza sare komunitarioen sorreran oinarrituko da jarraipena.
- Adinekoen Behatokia abian jartzea, azterketarako, eztabaidarako, ekarpenetarako eta lan partekaturako gune izan dadin, benetako parte-hartzea bermatuta, erakundeek adinekoen arreta emateko funtsezko ildoak betetzen dituztela zaintzeko.
- Laguntza-programak ezartzea, adinekoek etxean jarraitu ahal izan dezaten, eta egoitza batean egon beharreko denbora murrizteko, bizimodu autonomoa eta independentea sustatzeko, pertsona bakoitzaren ingurunean arreta integrala bultzatzeko eta komunitatean zaintzarako sareak sortzeko.
- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua etengabe hobetzeko prozesua, mendekotasun egoeren atzerapena lortzeko, pertsonaren autonomia sustatzeko eta hala nahi duten adinekoak etxean gera daitezten ahalbidetzeko. Lan-ildo hauek barne hartzen ditu:
 - Zerbitzua publiko bihurtzeko prozesua diseinatzea.
 - Zuzeneko arretako orduak gehitzea. 6 ordu astean 0 gradurako; 14 ordu astean I. gradurako, 20 ordu astean II. gradurako, eta 30 ordu astean III. gradurako, oinarri gisa.
 - Balorazioaren atzerapena arintzeko, Etxez etxeko laguntza eskaera egiten denetik ezarriko da, eta, ondoren, mendekotasun balorazioa berretsi ondoren egokituko da.
 - ELZko langileak udal-zerbitzu baten, zaintza-zerbitzu baten eta bizitza mantentzeko zerbitzu baten emaile gisa aitortzea. ELZko langileak ahalduzko eta haien lan-baldintzak hobetzea.
- Auzoko jantokien hedapenarekin jarraitzea, plazen kudeaketa arin eta errazarekin: eguneroko eskariak kudeatzen dituen figura profesionala eta jantoki guztietarako sukalde propioa. Legegintzaldian, gutxienez, hiru jantoki jarri dira martxan oraindik halakorik ez duten Bizan zentroetan.

ehbildu

- Hurbiltasuneko arreta komunitarioko eredu bateranzko trantsizioa; baliabideak modu deszentralizatuan planifikatzea, hiriko auzoetan kokatuta, adinekoek behar dituzten laguntzak lor ditzaten, baina beti haien ingurune hurbilean, haien auzoan.
- Etxebizitza komunitarioen sare deszentralizatu auzoetan: lan-plana eta inbertsioak, Gasteizko auzoetan edo zonaldeetan etxebizitza komunitarioak sortzeko, lehentasuna adinekoen ehuneko handiena duten auzoetan jarritz. Legegintzaldi honetan zehar, etxebizitza komunitario berriak jarri dira martxan Gasteizko hiru auzotan, gutxienez.
- Egoitza-baliabideak zaintza-etxe bihurtzea. Ariznabarra egoitza eraberritzeko esperientzia pilotua. (14. orrialdea)
- Zaramagan adinekoen arretarako eguneko zentro berria, Vicente Manterola kaleko eskola eraikin ohian.

ehbildu

Proiektua: San Prudentzioko modulu anitzeko konplexua

- San Prudentzioko erresidentziaren eta bere ingurunearen potentzial osoa baliatu mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen arreta eta zaintza indartzeko, konplexu multimodular batean egituratuta. Kokapen ezin hobea, ezagutza eta prestigioa izan duen proiektu bat indartzuz eta XXI. Mendeko beharretara egokituz, zaintza eredu publiko eta kalitatezko batekin.
- Konplexu multimodular honen helburuak lau izango dira:
 - Euren ohiko etxebizitzan bizi ezin duten adineko pertsonen ostaturia eta kalitatezko zaintza eta arreta ematea.
 - Adineko pertsonen autonomiari eustea erraztea.
 - Arreta behar berriei modu espezializatuan heltzeko aukera izatea: demenziak eta bizitzaren azken fasean zaintza aringarrian behar duten pertsonak.
 - Familiei eta inguru gertukoari laguntza eta babesa ematea hala eskatzen duten egoeretan.



SAN PRUDENTZIO
BIZIRIK

- Egoitza publikoetako plaza batera sartzeko bi urtetik gora itxarote-zerrendetan dauden pertsonak ditugu, eta, aldi berean, eta bere potentzial guztia aprobetxatzetik urrun dagoen espazio bat hirian. Gaur egun, San Prudentzio multzoa osatzen duten eraikinetan gutxienez lau solairu daude erabat hutsik. Batzuk erdizka bakarrik okupatuta daude, edo bulegoak dituzte. Gure kalkuluen arabera, San Prudentziok eskaini ditzakeen plaza guztietatik heren bat, gutxi gorabehera, ez dira erabiltzen ari. (297 plaza hipotetiko eta 208 okupatu daude).
- Euskal Herria Bilduren proiektuak plaza kopuru orokorra handitu eta 308raino iristea ahalbidetuko luke, hainbat zerbitzu eta baliabidetan. Horrek esan nahi du artatutako pertsonen kopurua %50 handitu ahalko litzatekeela, egungo erabilerarekin alderatuta..
- Azpimarratu nahi dugu beti modulu eta espazio banatu, bereizi eta independenteak dituen antolakuntza dela, egoiliarrei hurbileko eta kalitatezko arreta emateko, baliabide berritzaileak erabilia, eta makroerresidentziaren kontzeptutik erabat aldentuta. Guztiak plaza publiko guztiak izango dira.

Konplexu multimodularra



- Zehazki, espazioen banaketa berriari esker, honako hauek eskain daitezke:
 - Lehen aldiz, mendekotasun larria eta handia duten pertsonen zerbitzura espazio bat jartzea, zainketa soziosanitarioak eta erizaintzakoak hurbiltasunez jaso ahal izateko, adibidez, ospitalizazio-prozesu baten edo ebakuntza baten ondoren. Solairu bat espazio soziosanitario horretara bideratuko litzateke, eta 14 plazako bi modulu independente izango litzuke, 28 pertsona artatzeko aukerarekin.
 - Alzheimerra eta beste dementzia batzuk dituzten pertsonentzako espazio soziosanitario berria, Arabako herrialdean aitzindaria. 36 plaza arteko eskaintza, 18 pertsonako bi modulutan.
 - Bizitzako azken fasean mendekotasuna duten pertsonen zainketa aringarriak emateko gune berri bat, zainketa komunitarioa eta kalitatezkoa eskaintzea ahalbidetuko duena. 61 plaza ere gaitu daitezke baliabide horretarako. Bizitzaren azken fasean zure etxea izan den tokitik alde egin behar ez izatea, eta, aldi berean, gune hori egokitzea, familiek espazio pribatu bat izan dezaten euren senideekin egoteko. Zainketa-espazio lasaia, denbora eperik gabekoa eta bizitzaren fase horretara egokitua.
 - Mendekotasun larria eta mendetasun handia duten 143 pertsonari egoitza-arreta gehitzea eta eskaini ahal izatea, 25 plazako moduluetan.
 - Azkenik, San Vicente de Pauleko ostatu zaharrear dagoen eguneko zentroa utzi eta lekuz aldatu ahal izatea, eraikin horretan Gasteizko Alde Zaharreko osasun-zentro berria kokatu ahal izateko. Beraz, eguneko arretarako 40 plazak espazio berri batera aldatuko lirateke, eta bertan

ehbildu

zerbitzu gehiago eskainiko lirateke espazio berri batean, prebentziozko esku-hartze hobea egin ahal izateko eta zahartze aktiboa sustatzeko.

ehbildu

Proiektua: Ariznabarrako zaintza etxea

- Gaur egungo Ariznabarra egoitza lau modulu sektorizatu izango dituen zaintza etxe publiko bihurtuko dugu, mendekotasun handia duten 140 pertsona artatzeko.
- Titulartasun publikoko egoitza hori kudeatzen duen egungo enpresa pribatuarekin kontratua amaitzen denean, EH Bilduk lau helburu dituen zaintza etxe publiko hori bultzatuko du: zaintza publikoak eta kalitatezkoak eskaintzea, autonomia eta intimitatea sustatzea, familia, gizarte eta belaunaldien arteko harremanak indartzea, egoiliarrentzako eta haien familientzako gune atseginak sortzea, eta lan-baldintza duinak bermatzea.



ARIZNABARRA

ZAINTZA-ETXE PUBLIKOA

- Mendekotasun maila desberdinei erantzuteko, lau modulutan arreta sektorizatua sortzea planteatzen da. Horietako bat bi azpimodulutan banatutako plaza psikogeriatrikoetarako gordeko litzateke.
- Gainera, 30 plaza dituzten eguneko zentroak izango lituzke, bakoitzak elikadura, higiene eta errehabilitazio beharrei erantzuteko ez ezik, ongizate emozionalari eta nahi ez den bakardadearen prebentzioari erantzuteko ere pentsatuta, aisialdiko eta denbora libreko jarduerak bultzatuz.
- Zaintza etxeak atsedean hartzeko zerbitzu bat izango du beren etxeetan mendeko pertsonak zaintzen dituzten familien atsedena errazteko, eta larrialdiko arreta programa bat, hainbat arrazoiengatik denbora laburrerako zaindu behar diren mendeko adinekoei arreta eman ahal izateko.
- Azkenik, bi espazio berri sortzea planteatzen da: egoiliarrentzako, haien familientzako eta zentroko langileentzako lorategi eskusiboa; eta lorategi eta parke komunitario bat, auzoko bizilagunek ere jarduerak eta komunitate eta belaunaldi arteko aisialdirako espazioa parteka ditzaten.

ehbildu

- Ariznabarra zaintza etxearen publikazioak profesionalen lan-baldintzak hobetzea ekarriko du. Horretarako, lan-kontratupeko langilearen figuraren bidez, nahi duten pertsona guztiak Ariznabarra zaintza-etxe berriko lantaldeko kide izango dira.

ARIZNABARRA Zaintza-etxe publikoa

ehbildu

EH Bilduren proposamena



BEGOÑA Moduloa	38	plaza autonomia-gradu altuenei arreta emateko.
ARANZAZU Moduloa	36	plaza gela gradu altuagoetarako.
ESTIBALIZ Moduloa	36	plaza osasun arazo larriak dituen pertsoneri arreta emateko.
ARMENTIA Moduloa	30	plaza psikogeriatriko modulua, bi azpi-modulutan banatuta.

ARIZNABARRA
Zaintza-etxe publikoa

ehbildu

- Aniztasun funtzionala
 - Familia zaintzaileak zaintzeko eta laguntzeko Maiteki programa indartzea.
 - Dibertsitate funtzionala duten pertsonen profilei zuzendutako jarduerak, programak eta zerbitzuak areagotzea, dibertsitate funtzionala duten pertsonak zaintzen dituzten familiek programa horren erabilera areagotzeko.
- Haurtzaroa eta familia
 - Prebentzio programak hobetzea eta indartzea:
 - Kaleko Hezkuntzaren programan, hezitzaileen kopurua handitzea, artatutako adingabeen kopurua handitzeari kalitatezko baldintzetan heldu ahal izan diezaioten. Lehen legegintzaldirako, gutxienez, hiru hezitzaile gehiago izatea.
 - Detekzio sare indartsu bat garatzea, familia inguruneen egoera gatazkatsuak lehenengo uneetan atzemateko aukera emango duena, berehala esku hartu ahal izateko.
 - Familia ingurunea zaintzeko eta gaitzeko laguntza, zerbitzu eta programen sare osoa diseinatzea: familia hezitzaileei berehalako laguntza ematea gurasoen edo seme-alaben artean zailtasunak sortzen diren familien etxean, gurasoak gaitzeko eta aldaketa positiboak ahalbidetzeko, adingabeak etxean gera daitezten, babes-etxebizitzetara irtetea saihestuz.
- Gizarteratzea
 - SMUS Gizarte Larrialdietako Udal Zentro bihurtzea:
 - Langileen kopurua eta profila handitzea, diziplina arteko arreta jarraitua eskaintzeko.
 - Zerbitzuaren diseinua eguneratzea, are malguagoa eta eraginkorragoa izan dadin gizarte larrialdiko egoera guztiei erantzuterakoan, eta beti izan ditzan plazak edo baliabideak larrialdiko arretarako.
 - Espazio fisikoan esku hartzea kalitatezko arreta eman eta jaso daitekeen espazio atseginak diseinatzeko.
 - Egoitza baliabideen eredu aldaketa, etxebizitzan oinarritutako eredu baterako norabidean:

ehbildu

- Adingabekoak dituzten familientzako larrialdiko harrera zentro bat abian jartzea. Intentsitate handiko eta egonaldi laburreko baliabidea izango da, hainbat arrazoi direla-eta (etxegabetze-prozesuak, migratuei lehen harrera egitea, babes egoeran dauden familiak) etxebizitzarik ez duten adingabeak dituzten familiei etxebizitza espazio bat eskaintzeko. Gutxienez lau familiarentzako plazekin hasiko litzateke zerbitzua.
- CMAS baliabideko profesionalen taldea indartzea, adingabeak zaintzeko eta hezteko ohiturak sustatzeko. Familien eta adingabeen batez besteko egonaldia murrizteko lan egingo da.
- CMASeko sukalde propioa berreskuratzea, menuak pertsonen ezaugarrietara egokitzeko eta kulturari eta elikadura beharrei erantzuteko.
- Zubi gune bat sortzea, aldi baterako bitarteko horietan dauden adineko pertsonen eurentzat diseinatutako baliabideetara igarotzen laguntzeko.
- Aterpen 24 orduko arreta eskaintzea, eguraldi txarra, osasun beharra edo urgentziazkoa dagoenean espazioa itxita egotea eta arreta eskaini ezin izatea eragozteko.
- Aterperen barruan gune espezifikoko bat sortzea, emakumei arreta emateko eta egon daitezkeen arriskuak murrizteko.
- Aterpeko espazioaren barruan banakako gelak edo espazio independenteak prestatzea krisi egoerarako.
- Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeentzako arreta indartzea:
 - Bazterkeriaren aurkako politiken prestaketan eta diseinuan ikuspegi feminista integratzea, honako helburu hauek ahalbidetzeko:
 - Benetako egoera ikusarazten laguntzea.
 - Egin beharreko esku-hartzeak ahaik eta gehien indibidualizatu eta pertsonalizatu dira, emakumek bizi ditzaketan egiturazko arriskuak ahalik eta gehien mugatzeko.
 - Dauden baldintzak malgutzea, emakumeek bizi izandako prekaritate egoerak ez larriagotzeko.

ehbildu

- Emakumeen parte-hartzea maila guztietan sustatzea. Haien bizi espazioa eta erabakitze ahalmena berreskuratzea ahalbidetuko duten estrategiak bilatzea.
- Zaurgarritasun sozialeko egoeran dauden emakumeei arreta emateko zentro bat sortzea, 24 orduko arretarekin. 8 plaza izango dituen espazioa da, eta bi mailatan jardungo du:
 - Oinarrizko arreta: oinarrizko premien estaldura, ostatua, elikadura, higiena, gauzen zaintza eta gizarte arretaren hasiera. Gizarte-larrialdiko egoeran, kontsumo aktiboan edo gizarteratzeko prozesua zailtzen duen beste edozein arazotan dauden emakumeak artatuko ditu.
 - Arreta espezializatua: Premia fisiko eta psikologikoetara egokitzen den arreta indibidualizatua eskaintzea, arretari alternatibak eskaintzeko.
- Kabira bulegoa martxan jartzea, Foru Aldundiaren eta Udalaren zerbitzu eta prestazioen sarean sartzeko ate gisa. Gune horretara sartzen diren pertsonentzako sarbide malgua eta larrialdiko arreta ahalbidetuko dituen arreta gune bakarra izango da. Erreferentzia-gune bat, gizarte bazterkeriako egoeran dagoen edozein pertsonak bere beharrak, eskaerak, problematikak edo kezkek planteatu ahal izan ditzan.
- Bulego horrek eta kaleko hezkuntzako taldeak bero-mapak egingo dituzte, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen egoera, joan-etorriak eta presentzia ezagutzeko.
- Habia sarea martxan jartzea, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonentzako etxebizitzaren eskaintza. Gasteizko Alokairuko Etxebizitzaren Udal Parkea martxan jartzearekin batera, etxebizitza batzuk prestatuko dira bizitoki-alternatibak eskaini ahal izateko, etxebizitza sarbiderik ez duten pertsonen kasuan. Legegintzaldiaren joanean, gutxienez 25 plazako eskaintza osatu nahi izango du, udal-baliabideen artean edota beste administrazio batzuekin hitzartuta (Alokabide).
- Bizileku eskaintza hori hiriko hainbat tokitan banatzearen aldeko apustua egingo da, eremu bakoitzeko beharrei erantzun ahal izateko.
- Etxebizitza-espazio bat sortzea aztertuko da, autokudeaketa-maila jakin batzuekin, bizileku bazterkeriako egoeran dauden

ehbildu

pertsonak ohiko etxebizitza eskuratzeko elementu trantsizionala izan dadin: erabiltzaileek beren errutinak autokudeatzen dituzten 10 plazako espazioa, bizikidetzara-arauek, eskariaren arabera zereginetan eta ibilbide pertsonalen bilakaeran laguntzen duen diziplinarteko talde baten laguntzarekin, erabiltzaileen ahalduntzearen ikuspegitik.

- Zaintza komunitarioak
 - Zaintzen Udal Mahaia sortzea, zaintzaren sektore guztietako eragileek parte har dezaten: berdintasun arloetako teknikariek, osasun arloko profesionalak, gizarte zerbitzuetako profesionalak, gizarte ekintzako profesionalak, eta haur eskoletakoak, mugimendu feministaren ordezkariak, adinekoen elkarteak, dibertsitate funtzionaleko elkarteak, migratzaileen elkarteak, gizarte-sareak, eta abar.
 - Zaintza sare komunitarioak. Publikoak komunitatearen zerbitzura egon behar duenez, zaintza sare komunitarioak indartuko dira, beharrezko bitartekoak, espazioak eta baliabideak emanez.
 - Etxeko lanetan diharduten emakumeen kolektiboari arreta espezifikoa ematea, haien lana duinduz ahalduntzearen bidez (lege eta lan aholkularitza, eta abar) eta haien ekarpenaren aitorpen soziala eginez.
 - Hiri zaintzailea. Hirigintzatik hiri zaintzailea sustatzea, hiria eta espazio publikoa eratzeke moduak zainketak errazten baititu.

1.2.- Osasuna

- Gasteizko Udalak osasun publikoaren defentsa egingo du eskumenak dituzte administrazio guztien aurrean. Zentzu horretan kalitatezko arreta hurbila bermatuta egon dadin lan aktiboa egingo du, horretarako beharrezkoak diren azpiegiturak, bitarteko teknikoak eta pertsonalak daudela zainduz.
- Gasteizko Udalak azken urteotan Osasun arloan egin diren murrizketak atzera egiteko elkarrizketa abiatuko du Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin. Bereziki, arretarako bi espazio berreskuratzeko lan egingo du: San Martingo PAC edo Etengabeko Arreta Puntua, eta Santiagoko Ospitaleko larrialdietan arreta zuzena.
- Txagorritxuko larrialdietan dauden itxaron zerrenda onartezinak arintze aldera, Olagibelgo PAC Etengabeko Arreta Puntuak 24 orduko zerbitzua ematea bultzatuko du udalak.
- Gasteizko Udalak udalerriaren beharrak aztertze lankidetzat ituna bultzatuko du Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin, etengabeko arreta puntuei dagokionez Gasteizek bermatuta izan dezan Bilbok edo Donostiak duten eskaintza parekoa.
- Gasteizko Udalak beharrezkoak diren tramiteak azkartuko ditu osasun arretari zuzendutako azpiegitura berriak martxan jar daitezzen. Bereziki, auzoetako bi anbulategi hauek abiatzeko lan egingo da:
 - Alde Zaharreko anbulategiaren lekualdatzea egungo espaziotik San Prudentzioko hospizio ohiaren eraikinerara.
 - Olarizurako anbulategi berri baten proiektua, horretarako orubea Osakidetzaren eskuetan jarrita.
- Gasteizko Udalak, lankidetzat itun baten bidez, auzoetako osasun azpiegitura eta beharrak berrikusteko azterketa egingo du legealdian, beharrezkoak diren hobekuntzak eta egokitzapenak egin daitezzen. Edonola ere, honezkerok jakinak diren gabezi batzuk konpontzeko elkarlana sustatuko du Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin. Hala nola:
 - Sansomendiko anbulategiaren birmoldatze integrala, egungo eraikinak dituen gabeziak konponezinak balira, beste kokapen bat bilatzeko aukera zabalik utzita.
 - Pilar auzoko anbulategiaren birgaitzea eta birmoldatzea, gaur egun dituen gabeziak arintzeko.
- Tokiko osasun-sareak sustatzea, auzo bakoitzeko eragileen artean partekatutako espazio gisa: osasun-zentroa, adinekoren Bizan, auzo-elkarteak, ikastetxeak, udal-zerbitzuak... Auzo mailan prebentzioa eta osasuna batera lantzeko gunea, ekintza partekatuen bidez.

2. EKONOMIAREN ERALDATZEA ETA TRANTSIZIO EKOLOGIKOA

2.1.- Enplegua eta ekonomiaren sustatzea

- Enplegua
 - Udal enplegua eta kontratazioa
 - Enplegu publikoa gutxienez gaur egungo kopuruan mantentzeko konpromisoa, eta erretiroak eronez gero, haien erreleboa, zerbitzu publiko propio eta kalitatezkoak bermatzeko.
 - Udalak hasitako finkatze prozesuekin jarraitzea, behin-behinekotasuna eta bitartekotasuna maila teknikoetara murrizteko azken helburuarekin. Legezko betebeharretatik haratago, enplegu publikoaren eskaintza prozesuak behar besteko aurrerapenaz planifikatuko ditu udalak, enplegu egonkorraren alde egiteko.
 - Lantaldea gaztetzea erraztuko duten neurrien inguruan udal langileen ordezkariekin akordioa bilatzeko konpromisoa.
 - Generoaren araberako udal enpleguaren banaketari buruzko azterlana. Emaitzetatik plan bat aterako da, sektorekako neurriekin, emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakalari eta lan baldintzen balizko desorekari aurre egiteko.
 - Udal mailako azpikontratazioen mapa berrikustea, maila teknikoan kudeaketa zuzena berreskuratzeko aukerak aztertze, plantillarekin negoziatu ondoren eta baldintzak homologatzeko eta parekatzeko asmoz. Arreta berezia jarriko zaie:
 - Hondakinen bilketari eta kudeaketari
 - Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuari
 - Kirol jardueri eta udako kanpainari
 - Amvisa: bezeroarentzako arretari eta Krispiñanako araztegiari
 - Azpikontratazioen eremuan, klausula sozialak dituzten pleguak eta herrialde hitzarmenaren aplikazioaren bermea.
 - Udal administrazioaren maila ezberdinetan telelanaren aukerak aztertze eta sustatzeko konpromisoa. Esperientzia pilotuen ondoren, telelana bultzatzeko urte anitzeko plana egingo da Gasteizko Udalean.
 - Udal lantaldearen kontziliatze aukerak hobetzeko neurriak aztertu eta ezarriko dira. Hala nola, ordutegiak malgutzera.

ehbildu

- Udalak enplegua sustatzeko programa guztiak berrikustea, eta helburuak birbideratzea, udalerriaren erronka estrategikoei eta enplegu hobi berriei aurre egiteko:
 - Zaintza sektorea
 - Trantsizio ekologikoa
 - Birgaitze eta eraginkortasun energetikoa
 - Industria sektorearen eraldaketa
 - Lehen sektorea
- Kontratazio publikoaren behatoki bat sortzea eta kontratazioari buruzko udal jarraibide berri bat onartzea, klausula sozial, genero- eta ingurumen klausula berriak eta hobetuak sartu ahal izateko, tokiko ekonomia lehenesteko, erosketa publiko iraunkorraren eraldaketa-potentziala hedatzeko, ekonomia sozial eta solidarioa sustatzeko eta ustelkeriaren aurkako bermeak handitzeko.
- Industria
 - Udalerriaren iparraldeko industriguneetan industriarako eta zerbitzuetarako lurzorua berreskuratzeko eta birgaitzeko plan bat garatzea: faseak definitzea, sektorizatzea eta erabilera posibleak definitzea, tamaina eta tipologia desberdinetako industria-jardueretarako eskuragarri dagoen industria lurzoruaren eskaintza handitzeko, udalerrian lurzoru urbanizaezin gehiago kontsumitu beharrik gabe.
 - Betoñu aldean industrialde berritu bat berreskuratu eta martxan jartzeko plan berezi bat garatzea: sektorizazioa, erabileren definizioa (industrial, zerbitzuak, etxebizitza, ekipamenduak), inbertsioa, eta martxan jartzeko faseak. (24. orrialdea).
 - Oreitiasolo industriogeneralp erabilera mistoen plan pilotua. Tamaina eta egoera direla eta, Oreitiasolo leku ezin hobea da etxebizitzaren eta ekoizpen-espazioaren erabilera mistoa sustatzen duen ordenantza berri bat probatzeko, 15 minutuko hiriaren ideia-indarrean oinarrituta
 - Arabako Garapen Agentziarekin hitzarmen bat sustatzea, Gasteizko udalerriko industria-ezarpenen tipologiari eta larrialdi klimatikoaren erronkaren aurrean dituzten aurreikuspenei buruzko azterlana egiteko.
 - Enpresen Trantsizio Iraunkorrerako Erakunde arteko Plana bultzatzea, hala behar duten enpresak produkzio jarduera eta kudeaketa nahiz ekoizpen modu iraunkorragoetara bideratzeko eta sustatzeko.

ehbildu

- Aurreko planarekin batera, industria iraunkortasunean aurrera egiteko programa pilotu bat garatuko da. Programa horrek bi jardun ildo izango ditu:
 - Industria-sinbiosia: enpresa ezberdinen arteko ezagutza eta aliantzak erraztea, energiaren eta lehengaien kontsumoa murrizteko.
 - Birmoldaketa iraunkortasunaren klabeak: enpresei laguntza ematea beren produktu edo zerbitzu lerroak udalerriaren karbonorik gabeko etorkizunean proiektzio handiagoa duten beste batzuetara eraldatu nahi izateko.
- Fabrikazio aurreratuko laborategi bat abian jartzeko aurretiazko lanak eta eraikuntza-proiektua, ideia eta aukera berriak sortzeko eta garatzeko gune gisa, eta enpresek, langileek, ikasleek eta ikertzaileek parte hartzeko topagune gisa..
- Akordioa, Gizarte Segurantzak Iparraldeko parkean dituen instalazioak laga ditzan, eta horren eraldatzdea enpresa eta proiektu berrien hazitegi eta elkarlanerako gune gisa erabiltzeko.
- Udalaren energia aholkularitzako zerbitzua indartzea, enpresei eredu iraunkoragoetara igarotzen laguntzeko: industriari eta ETEei zerbitzua zabaltzea, eta merkataritzarako eta lehen sektorerako arreta-ildoak garatzea.

ehbildu

Proiektua: Betoñu berri

- Euskal Herria Bildutik uste dugu Udalak gidatu behar duela udalerraren eraldaketa sozioekonomikoa, eta hori egin behar duela gainerako eragile politiko, ekonomiko eta sozialekiko aliantzen eta lankidetzaren bidez, eta herritarrekin batera. Gai izan behar dugu enpresei erronka horri aurre egiteko behar dituzten aldaketak eta egokitzapenak laguntzeko eta errazteko. Eraldaketa ez dadila bihurtu galeraren sinonimoa, baizik eta enplegu aukerei eustea eta haien kalitatea etengabe hobetzea.
- Zaindu beharreko alderdietako bat da enpresa proiektuei espazioa eskaintzea beren jarduera sortzeko, garatzeko eta, behar izanez gero, berbideratzeko. Berriei, noski, baina baita lehendik daudenei ere. Hori da Euskal Herrian Bilduk egin duena Miñaoko baterien gijafaktoriaren aldeko apustu irmoarekin, eta Mercedesen eta Michelinen handitzeak errazteko borondate argiarekin.



Betoñu Berri

- Gehiago behar dela uste dugu, estrategia zabalagoa behar da. Alde horretatik, gaur egun Gasteizko iparraldean gutxi erabiltzen den edo zuzenean erabiltzen ez den industria lurzoru asko dago. Industrialdeen sare bat dugu, garai bateko egitura eta eskaintzarekin, eta enpresa arrakastatsuak daude lanean pabiloi eraitsiekin eta orube hutsekin batera.
- Betoñu, Gamarra, Larragana eta Arriagako industriguneek 400 hektarea baino gehiago dituzte, Gasteizen erabilgarri dagoen lurzoru industrialaren laurden bat inguru. Onartu berri den HAPOK bi jarduera biltzen ditu eremu horretan, 10 hektarea eskasekoak. Uste dugu proposamen horiek oso labur geratzen direla, eta Plan Zuzentzaile bat onartzea planteatzen dugu, Betoñu berria deitu duguna, 2050. urterako eremuaren erabateko eraldaketa bideratuko duena.
- Gasteizko iparraldeko industria eremu osoa pixkanaka berritzea eta modernizatzea proposatzen dugu, XXI. mendearen bigarren erdialderako polo ekonomiko produktibo, dinamiko eta berritzaile bihurtzeko, balio erantsi handiko enpresa berritzaileak erakartzeko, garatzeko edo hazten laguntzeko. Eraldaketa horri ekiteko, industria sakon eraberrituko dugu Betoñuko herriaren hegoaldean, eta gune farmazeutiko bihurtuko dugu, Sendagaien Ikerketa eta Ekoizpenerako Zentroa elementu nagusi gisa hartuta.

ehbildu



- Betoño berriaren bidez, ingurunea eraldatzeko estrategia integrala eskaini nahi dugu, hiru helburu nagusi lortzeko:
 - Enpresak erakartzeko eta garapen ekonomikorako polo moderno eta berritzaile bat sortzea.
 - Hazteko edo garatzeko kokaleku berriak eskaintzea enpresa berritzaile eta balio erantsi handikoei, batez ere teknologiarekin, eraldaketa digitalarekin edo sormen industriekin zerikusia dutenak.
 - Hiri espazio bat eskaintzea, erabilera misto gehiago sortuz, eta eremua gainerako hiri finkatuarekin hobeto integratu, espazio publikoaren erabileraren, mugikortasunaren eta abarren ikuspegitik.
- Helburu horiek lortzeko, plan zuzentzaileak hainbat ekintza bilduko ditu, lau ardatz nagusitan oinarrituta: hirigintza eta arkitektura berroneratzea, erabilera mistoak aberastea, hiri integrazioa egituratzea eta kudeaketa partaidetua eta proaktiboa.
- Eraldaketa horren lehen fasea Betoño herriaren hegoaldeko 20 hektareako eremuan egingo litzateke, hiru esku-hartzerekin:
 - Betoño kalearen mendebaldean, Antxo Jakituna Fundazioaren eta IDarte diseinuko goi mailako eskolaren presentzia aprobetxatuz, espazioa ardatz berde-kultural bihurtuko dugu. Hiri-artea erakusteko eta egiteko gune bat sortuko dugu, eta, bertan, estalpeko galeria bat, sormen-garapenerako gune erakargarri eta moderno bat izan dadin, IDarteri lotuta.
 - Aranbizkarra auzotik hurbilen dagoen eremuan, hiri integrazioa eta mugikortasun lotura zainduz, auzorako ekipamendu berriak jarriko lirateke. Zuzkidura etxebizitzak, edota jatetxe edo ostalaritzarako

ehbildu

espazioak, besteak beste. Lur gaineko aparkalekua mantenduko litzateke, baina plakaz estalita energia berriztagarria sortzeko.

- Azkenik, esku-hartzearen muina Betoñu, Oñati, Elgoibar eta Eskoriatza kaleen arteko trapezioan kokatuko da, 11,1 hektarearekin, MedTech izeneko farmazia-industriako polo bat kokatzeko leku egokia da. Berrikuntzarako katalizatzailea Medikamentuen Ikerketa eta Ekoizpenerako Zentroa izango litzateke, adibidez, gaur egun Betoñu kalearen ondoan dagoen lursail hutsean joan daitekeena. Farmazia Fakultatearekin, OSI Arabarekin eta Miñaon honezkero dauden jarduera eta enpresen arteko lotura izango litzateke.



- Gainerako arloetarako beste ekintza mota batzuk planteatzen dira, batzuk aipatzearren:
 - Azpiegituren plan berezi bat, telekomunikazioen, energiaren edo hondakinen kudeaketaren arloan industria aurreratuei beharrezkoak zaizkien zerbitzu guztiak bermatzea ahalbidetuko duena.
 - Zadorra etorbidera edo Betoñu kalera ematen duten eremuak aprobetxatzea hirugarren sektoreko jarduerak edo tailer erakuslehoak kokatzeko.
 - Gasteizko kanpoaldeko Eratzun Berdea eta barrualdekoa Betoñu berrian zehar lotuko dituen korridore bat sortzea, VascoNavarro trenbidearen ibilbide zaharrari jarraituz. Santo Tomas ibaia berreskura liteke zatiren batean, Gasteiz etorbidean egindako esku-hartzearen antzera.
 - Epe ertainera begira, Salburuko tranbia zabaltzea planteatzuko litzateke, industrialdeko eremu berri osora irits dadin.

ehbildu

- Berritzearekin zerikusia duen guztia kudeatzeko, udal-erakunde berri bat sortuko da. Esparru horretan dagoeneko ezarrita dauden enpresen beharrak asetzen lagunduko du, bai eta eremutik kanpoko enpresak erakartzen saiatuko da ere, sustatzaile lanak eginez. Erakundea, beraz, proaktiboa izango litzateke, enpresei laguntzeko zerbitzuak eskainiz eta haien bilakaera aztertuz. Erakunde hori arduratuko da, halaber, HAPOn beharrezkoak diren aldaketak sustatzeaz, garapenerako eta exekuziorako hirigintza dokumentazioa barne. Erakunde bera arduratu liteke Gasteizko beste industrialde batzuk berritzeaz ere (Ehari-Gobeu, Oreitiasolo...).

ehbildu

- Zerbitzuak
 - Merkataritza eta ostalaritza:
 - Tokiko merkataritzari laguntzeko, prestatzeko eta sustatzeko bulegoa abian jartzea.
 - Tokiko Merkataritza Mahaia abian jartzea, sektorearen eta administrazio publikoaren arteko topaketa, eztabaida eta akordio organo gisa. Mahaia batzorde eragile paritario bat izango du, sektorearen beharrak arindu eta erantzuteko.
 - Gasteizko Tokiko Merkataritzaren Behatokia sortzea, Udal Azterlanen Kabinetearen Unitatearen barruan. Behatoki horrek tokiko merkataritzaren egoerari buruzko estatistikak eta aldizkako azterlanak argitaratuko ditu, eta gutxienez urtean behin merkataritza-lokalei buruzko inbentario bat egin eta eguneratuko du.
 - Merkataritza zonalde edo ardatz estrategikoen eta merkataritza eremu kalteberen mapa.
 - Hutsik dauden merkataritza lokalen errolda, bereziki merkataritza zonalde eta ardatz estrategikoetan daudenak.
 - Proiektu berrietarako merkataritza lokalen poltsa, hutsik dauden merkataritza lokalen eskaintza publiko bat sortu eta hiriko enpresa eta merkataritza jarduera dinamizatzeko. Tokiko merkataritza laguntzeko, prestatzeko eta sustatzeko bulegoak dinamizatuko du, eta bestelako administrazioen nahiz norbanakoen lokalak gehitzeko aukera eskainiko du.
 - Erabiltzen ez diren lokalak birgaitzeko programa, epe luzerako alokairu eskuragarrien truke, merkataritza eta zerbitzu proiektu eta ekimen berriak garatzeko.
 - Birgaitze integraleko jarduketa guztietan merkataritzaren eta merkataritza lokalen egoeraren azterketa sartzeta eta sektorea garatu beharreko neurrietan sartzeta.
 - Plan espezifiko bat garatzea, merkataritzan belaunaldien arteko ordezkapena bermatzen lagunduko duten ekintza eta proiektu zehatzekin.
 - Saltoki enblematikoak babesteko katalogo bat garatzea eta onartzea, establezimendu horiek kontserbatzeko eta mantentzeko pizgarriak bilduko dituena.
 - Merkataritza seinaleen eredu bakarra garatzea eta abian jartzea, tokiko eta hurbileko merkataritzaren eremu garrantzitsuenak

ehbildu

identifikatzen laguntzeko, hala nola merkataritza zonalde eta ardatz estrategikoak edo udal-merkatuak.

- Auzoko merkatuak hobetzeko programa. Azpiegiturak hobetzea (postuen tipologia, etab.), estalkiak gehitzea edo hobetzea (Simon Bolibar), eta Santa Barbarako merkatua Leizaola Lehendakariaren plazxara zabaltzea, beste jarduera mota batzuk sartzeko.
 - Gaur egun erabiltzen ez diren edo gutxiegi erabiltzen diren auzoko merkataritza espazio eta merkatuei buruzko azterlan bat egitea, eta, ondoren, horiek erabiltzeko eta berreskuratzeko plan bat abian jartzea. Helburua honako hau litzateke: espezializazio hobi posibleak bilatzea (artisauen merkatu iraunkorra), jarduera hasiberrietarako espazioak gaitu ahal izatea, edo horien erabilera mistoa aztertzea kultura edota aisialdi jarduerekin, etab.
- Turismo
 - 'Goza Gasteiz' txartel turistikoa martxan jartzea, Gasteizen gaualdiak ugaritzea sustatzeko. Txartelak beherapenak izango ditu udal zerbitzuetan eta atxikitako enpresetan (garraioa, museoak, kultur jarduerak, aisialdi ekintzak, jatetxeak, saltokiak, udal kirol zerbitzuak...), eta bi gau edo gehiago erreserbatuta dituzten pertsonentzako izango da.
 - Lautada-Gasteiz Biosferaren Munduko Erreserba. Turismoa erakartzeko estrategia jasangarria, Arabako Lautadan Unescoren biosfera erreserba izendatua izateko hautagaitzan oinarritua, honako helburu hauekin:
 - Gasteizko udalerriak turismo berdearentzako duen erakargarritasuna sustatzea.
 - Hautagaitzaren parte diren gainerako udalerriekin pakete, ekintza eta esperientzien eskaintza partekatua eta lankidetzatza sustatzea.
 - Gasteiz eta Araba erdialdea naturako turismo nodo gisa indartzea eta bereiztea, parke naturalen sarearekiko (Gorbeia, Urkiola, Aizkorri-Aratz, Izki, Valderejo) eta Arabar Errioxako paisaia eta gastronomiarekiko duen hurbiltasunagatik eta irisgarritasunagatik.
 - Gasteizko Mendietako ibilbideen gida berria. Inguruari balioa ematea, Gasteizko mendietan barrena oinez edo bizikletaz

ehbildu

egindako ibilbideak hobetuz eta seinaleztatuz, egungo Eraztun Berdeaz haraindiko turismo naturalerako eskaintza indartzuz.

- Eraztun Berdean ondare arkeologikoaren balioa nabarmentzea eta sartzea, hari kultura-eranskin bat emanez eta aztarnategi arkeologikoak hedatzen lagunduz, hala nola Arkaia, Atxa, Mariturri, Armentia, Mendizabala, Olarizuko harrobiak eta Krutzemendi.
 - Zortzi bihotz, Araba bakarra: Lurraldeko gainerako zazpi koadrilak Gasteizera jarduera ezberdinen bidez hurbiltzeko programa (dastatzeak, hitzaldiak, erakusketak). Programa garatzeko egoitza bat finkatzea, helburu bikoitzarekin: Gasteizen gainerako eskualdeetara sartzeko atea izatea, eta turismo-eskaintzarako erfortzu gisa funtzionatzea, gidekin, bisitarietzako ekitaldiekin eta abarrekin.
 - Gasteiz kultura eta arte sorkuntzari lotutako helmuga gisa bultzatzea, eskaintza turistikoan urteroko Gau Zuria txertatuz.
- Lehen sektorea
 - Lurraren Kontseilua sortuko da Gasteizko Udalaren, udalerria osatzen duten herrietako batzar administratiboen, eta sektorearekin zerikusia duten eragileen (ekoizleak, kontsumitzaileak, gizarte-eragileak, etab.) arteko eztabaidagune eta topagune izango dena..
 - Gasteizerako Estrategia Agroalimentario Berria onartuko da, eta estrategia hori definitzeko, irismena erabakitzeko eta lantzeko ardura Lurraren Kontseiluak eztabaidatu beharreko lehen zereginetako bat izango da.
 - Udal-lurren bankua sortuko da sektorean pertsona berriak sartzea errazteko, eta hura osatzen duten orubeen ekoizpen-balioari eustea ahalbidetzeko..
 - Basaldearen finantzaketa handituko da zentroa jardueraz betetzeko eta berrikuntzarako, jardunbide egokiak garatzeko, eta sektorerako hurbiltzeko gune gisa indartzeko.
 - Nekazaritza eta abeltzaintza jasangarriaren proiektu pilotuak garatu eta lagunduko dira ingurunetik hurbilago dauden formulen aldeko apustua eginez.
 - Lehen sektoreari berriaz zuzendutako laguntza programa onartuko da arreta hainbat arlotan jartzeko, hala nola: ohiko nekazaritza ekologikora igarotzea; sektorean pertsona berriak sartu ahal izatea; belaunaldien arteko txandatzeko, eguneratzeak eta prestakuntza errazteak; eta instalazioen eraginkortasun energetikoa eta hidrikoa hobetzea.

ehbildu

- Belaunaldien arteko txandatzearen erronkari gogoeta egiteko foroa sortuko da. Azterlan horren emaitzetatik abiatuta, plan espezifikoa prestatuko da txandatzeari laguntzeko.
 - EAEko biodibertsitate landuaren zentroa sortzea eta mantentzea, Euskadiko Hazien Sareak horretarako egiten ari den lanari jarraituz.
 - Transformazioko zentro primario bat martxan jarriko da produktuak garbitu, manipulatu, eraldatu eta ontziratzeak aukera eskainiko duena. Zentro hori hornidura-merkatuan bertan paratzeak, era berean, sinergiak sortzea ahalbidetuko du produktua banatzerakoan.
 - Udal jantokien pleguak berrikusiko dira hornitutako produktuak ekologikoak eta hurbilekoak izan daitezen irizpideak sartzeko. Horrela, produktu horien eskaria handitzeaz gain, jantoki horietan horien kontsumoaren aldeko kultura sortzen ere lagunduko da.
 - Eskola jantokien egokitzapena sustatuko da inplikaturako administrazio guztiekin lankidetzan. Gasteizko ikastetxe publiko bakoitzean sukalde propioa jartzea aztertuko dda, eta, apurka, instalazio horiek sortzen joango dira, eskainitako menuak tokian bertan prestatu ahal izateko eta ikastetxeak eskainiko diren menuen diseinuan eta kontrolean parte har dezaten errazteko.
 - CAuzoko merkatu berriak sortuko dira Salburua, Zabalzana eta Lakua auzoetan, bi helbururekin: herritarrei hurbileko produktuarentzat sarbidea erraztea eta tokiko ekoizleei salmenta aukera gehiago ematea.
 - Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko zuzeneko harremanei laguntzeko ildoak abiatu da, honako hauek bultzatuz: kontsumo-taldeak, berme-sistema parte-hartzaileak eta antzekoak.
 - Gasteizko auzo guztietan hiri-baratzeak arian-arian ezartzeko lan egingo dugu, bakoitzarentzat auzoko ezaugarrietara hobekien egokitzen den kudeaketa-formula bilatuz.
 - Gasteiz agroekologiaren aldeko udalerrri sarean sartzeari.
 - Elikagaien xahutzearen aurkako udal plana eratuko da banaketa-enpreekin, kontsumitzaileen elkarteekin eta merkataritza eta ostalaritza-elkarteekin lan eginez, helburu bikoitza duten ekintzak garatzeko: hondakinen sorrera murriztea eta elikagaien xahuketa murriztea.
- Ekonomia sozial eta solidarioa

ehbildu

- Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko ematen dituen aukerak aztertzea, kontratazio-instrukzioan klausulak sartuz.
- Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Zentroa irekitzea, udalerriko ekonomia sozial eta solidarioko enpresei bultzada eta ikusgarritasuna emateko, haien arteko sareak eta sinergiak sortzen laguntzeko eta ESSko enpresa eta kooperatiba berriak sortzen laguntzeko.
- Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko udal plana egitea.

2.2.- Hiri eredua

- Hirigintza
 - Sansomendi auzoan esku-hartze integraleko proiektu bat garatzea, Gasteiz barruko gainerako auzoetan duen potentzialaren adibide gisa. Proiektuak kontuan hartuko ditu etxebizitzak birgaitzea eta eskaintza, energia sortzea eta aurreztea, espazio publikoa berrantolatzea eta hobetzea, barruko eta kanpoko mugikortasuna, eta zerbitzuen eta merkataritzaren eskaintza. (35. orrialdea).
 - Lurzoru gehiago kontsumitzen ez duen eta etxebizitza eraikuntzari sektore berriak irekitzen ez dizkion hirigintzaren aldeko apustua.
 - Biztanleria dentsitate gutxien duten auzoak birdentsifikatzeko aukerak aztertzea, etxebizitza eskaintza hobetzeko, egungo eta etorkizuneko ekipamendu eta zuzkidura beharrak aldeztuz aurretik aztertuta.
 - Aireportuaren ingurunean industria lurzoruaren eskaintza handitzeko beharra izanez gero, VIAP proiektuaren zabalkuntza Zaia ibaian dike bat eraikitzea eskatzen ez duten alternatibetara bideratuz, beti ere proiektu zehatzei lotuta.
 - Gasteizko udalerriko etxebizitza turistikoak arautzea. Etxebizitza turistikoak soilik lehen solairuetan baimenduko dira, eta ehuneko mugak auzoka ezarriko dira etxebizitza turistikoak ez ugaltzeko, batez ere Alde Zaharrean eta Zabalgunean.
 - Hiri eskalako merkataritza ardatzak izendatzea/zonifikatzea, ardatz horietan merkataritza sustatzeko ordenantza berezi bat ezartzeko.
 - Gasteizen trenbidearen lurperatzea Zabalgana eta Salburua auzoetara luzatzeko azterlan informatiboa bultzatzea.
 - Irisgarritasuna hobetzeko hirigintza konponbideak bilatzea, eskailerak edo desnibelak dituzten etxebizitza etxadietan, bereziki Lakua-Arriaga inguruan eta Aranbizkarran.
 - Vicente Manterola kalea eraberritzea, Zaramagako eguneko zentroa eraikitzekeo proiektua aprobetxatuz, eta espazioa hobetzea eta eguneratzea korridore berde gisa Martxoaren 3ko plazaraino.
 - Auzotarren plaza: Plaza berria, belaunaldien arteko topagune izateko Salburuko bizilagunentzat. Plaza horren diseinua partaidetza prozesu baten bidez erabakiko da, eta auzoko eragile eta bizilagun guztiek parte hartu ahal izango dute. Hainbat

ehbildu

egoera eta beharretara egokitzeko hiri altzari mugigarriak izango ditu. Salburuako Boulevard kalearen eta Praga etorbidearen artean kokatuko da.

ehbildu

Proiektua: Sansomendi 40+

- Euskal Herria Bildutik proposamen bat aurkeztu dugu, Sansomendiko eremurako hainbat ekintza eta erreforma zehatz biltzen dituena, baina, era berean, birgaitzeari, espazio publikoaren erabilerari eta berrasmatzeari, trantsizio energetikoari edo zerbitzu publikoen indartzeari buruz planteatzen dugunaren adibide adierazgarria izatea nahi dugu hiri osorako.



- Udalerri gisa aurrean ditugun erronka handiak ikusita, argi eta garbi bat datozen esku-hartzeak dira: erronka demografikoa, klima krisiari emandako erantzuna, eta bizitzera merezi duen hiri baten diseinua. Aurkezten ditugun proposamen asko hiriko beste auzo batzuetara eraman daitezke, betiere bakoitzaren ezaugarrietara, nortasunera eta premia zehatzetara egokituta.
- Zergatik Sansomendi? Hiri barnealdean etxebizitza parke zaharragoa duten auzoak badaude ere, Sansomendik hainbat ezaugarri ditu, eta horiek oso interesgarri egiten dute mahai gainean jartzen dugun hurbilketa global baterako.
- Duela 40 urte baino gehiago hasitako auzoa da, hirigintzak, etxebizitzak edo mugikortasunak beste lehentasun batzuk zituzten garai batean. Lau hamarkadatan, oso esku-hartze gutxi egin dira inguru horretan. Oro har, espazio publikoaren gozamenaren ikuspegitik erakargarria ez den diseinuak irauten du, zaharkituta dago eta joan den mendeko diseinu joerei erantzuten die. Esku-hartze falta udalaren zorra da auzoarekiko.

1. Helburuak



Auzoa eguneratzea, bere hirigintza, zerbitzuak eta espazio publikoa egungo beharretara egokitzeko.

Erronka demografikoa, sozioekonomikoa eta klimatikoari aurre egiteko ekintza katalogo koherente bat prestatzea.

Auzokideen ekarpenen bidez aberastu eta hobetuko den bide-orri oinarritzko bat eskaintzea.



- Azken batean, proposamenak ez ditu soilik jarduerak batzen, baizik eta, gainera, pentsatu da, osotasunean hartuta, birgaitze integral bat emateko, zeinaren helburua baita espazio publikoan, eraikinetan eta zerbitzu publikoetan egindako esku-hartzeen bidez Sansomendin bizi diren pertsonen bizi kalitatea hobetzea.
- Jakina, auzoko bizilagunekin eta eragileekin landu beharreko proposamenak dira, edukia aberasteko eta helburuak udalaren eta auzoaren artean partekatzeko eta adosteko, hori ezinbesteko baldintza baita esku-hartzeak arrakasta izan dezan.
- 40+ izena jarri diogu proposamenari. Auzo honen lau hamarkadetako historiari keinu bat, eta hurrengo 40 urteetan espazio bizia izaten jarraitzeko eta bizi kalitatea hobetzeko borondatearen erakusgarri.
- Zehazki, planteatu dugun proposamenak Sansomendin esku hartzeko 18 eremu ditu, bost talde handitan bil daitezkeenak.

3. Ekintzak motaren arabera



Etxebizitza:

Etxebizitza parkearen birgaitzea eta hobekuntza, eraikin zaharretan energia eraginkortasuna handitzeko ekintzei arreta berezia jarrita.



Hirigintza:

Borinbizkarrako lotunearen espazioa erabiltzea, antzinako saihesbidearen ondoan, auzoarentzako zerbitzu berriak jartzeko.



Energia:

Sansomendin energia komunitate bat abiatzea, eta ekintza katalogo bat onartzea udal eraikinetan eta espazio publikoetan eguzki panelekin estalkiak jarri eta komunitatean txertatzeko.



Espazio publikoa:

Zaharberritze sakonak Oto Hiribidean, eta Paula Montal eta Antonio Machado zonaldean. Auzoko parkeetako birgaitzea eta modernizazioa, ortu komunitarioen sorrera, edota etxebizitza eraikinen patioetako birnaturalizazioa.



Zerbitzu publikoak:

Ekipamendu berriak (etxebizitzak alokairu babestuan eta adineko pertsonentzako etxebizitzak), garraio publikoaren eskaintza eta maiztasuna hobetzea, eta esku-hartzeak eskoletan, gizarte-etxean eta kirol espazioetan.



- **Etxebizitza:** Etxebizitza parkea birgaitzea eta hobetzea, arreta berezia jarritz eraikin zaharrenen energia-eraginkortasuna handitzeko ekintzetan. Kalkuluen arabera, 3.000 etxebizitza inguruk birgaitze motaren bat beharko dute, batez ere auzoaren hego-hegomendebaldean daudenak, eraikinen eta etxebizitzaren irisgarritasuna, horien erosotasuna edo energia eraginkortasuna hobetzeko.
- **Hirigintza:** Borinbizkarrak errepide ondoko espazioaren erabilera, saihesbide zaharren ondoan, auzoari zerbitzu berriak eskaintzeko.
- **Energia:** Sansomendirako energia komunitate bat martxan jartzea, eta udal eraikinetan eta erabilera publikoko espazioetan eguzki estalkiak komunitateari eransteko ekintzen katalogoa. Lurzoru publikoetako eta udal lurzoruetako ekintzekin 1.650.000 kWo sor daitezke, hau da, ia 500 etxebizitzaren urteko kontsumoaren baliokidea. Kalkulu batzuen arabera, teilatu pribatuak ondo aprobetxatuz gero, 3.000 etxebizitzaraino igo liteke kopuru hori.
- **Espazio publikoa:** Kaleen eta plazen eraberritze sakonak, hala nola Oto etorbidea edo Paula Montal. Auzoko parkeak berritzea eta modernizatzea, baratze komunitarioak sortzea edo etxebizitza etxadien patioak birnaturalizatzea.
- **Zerbitzu publikoak:** Ekipamendu berriak (alokairu babestuko etxebizitzak eta adinekoentzako etxebizitzak), garraio publikoaren maiztasunak eta eskaintza hobetzea, eskoletan eta gizarte-etxean eta kirol-eremuan esku hartzea.

4. Ekintzen zerrenda orokorra



- 1 Etxebizitzak birgaitzeko loguntza plana
- 2 Auzoan energia komunitatea sortzea
- 3 Energia berriztagarria sortzeko ekintza katalogoa
- 4 Oto hiribidearen erreforma
- 5 Antonio Machado eta Paula Montal arteko zonaldearen erreforma osoa
- 6 Paula Montal kalearen erreforma
- 7 Goro plazabaxoaren eta Ramon Rubial kaleen arteko ibilbidea aintzakoentzako eta bizikletentzako
- 8 Sansomendiko parkea berregituratzea
- 9 Antzinako salhesbidetaren ondoko hirigintza eraldaketa
- 10 Adineko pertsonentzako etxebizitzak komunitario berriak
- 11 Garraio publikoan hobekuntzak
- 12 Oinezko zerbitzuetan, hondakin bilketan eta espazio publikoan hobekuntzak
- 13 Eskoletan esku-hartzeak
- 14 Haurreskolaren ondoko haur parkea beritzea
- 15 Lokuko gizarte-etxea hobetzea
- 16 Lokua 03 kirol zonaldea
- 17 Etxebizitzak eraikitako patioen birmaturalizazioa
- 18 Auzoko merkataritza egoeraren azterketa



Informazio gehiago

ehbildu

- Etxebizitza
 - Alokairuko etxebizitzaren udal parkea sortzea. Gasteizko Udalaren eskumenekoak diren etxebizitza guztiak alokairuko parke publiko bat hornitzeko erabiliko dira. Parke horri beste administrazio publiko edo eragile pribatu batzuen etxebizitzak gehitu ahal izango zaizkio, lankidetzak-hitzarmenak eta programak sinatuta.
 - Plan estrategiko batek finkatuko ditu udalaren etxebizitza parkearen helburuak, eta lehentasuna izango du biztanle ahulenei eta baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenei etxebizitza bermatzea.
 - Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatuko da Zabalguna eta Salburua auzoetan babestutako alokairuko etxebizitza berria eraikitzeko. Hainbat urtetarako jarduera-kronograma adostuko da, hartutako konpromisoen jarraipena eta kontrola egiteko.
 - Etxebizitza publikoa berreskuratzea eta berreroatea, bakarrik edo beste administrazio publikoekin hitzartutako ekintzen bidez, alokairuko etxebizitzaren udal parkearen bitartez herritarrei eskura jartzeko.
 - Etxebizitzara bideratutako baliabide publiko eta pribatuak alokairu eskaintza egoki, lorgarri eta arrazoizko batera bideratzeko konpromisoa, prezioari dagokionez.
 - Tentsiopeko etxebizitza merkatu zonaldeak arautuko dira, auzoka, alokairuaren gehienezko prezioari mugak jartzeko eta udal etxebizitza politikak indartzeko asmoarekin.
 - Pizgarriak eta neurriak etxebizitza hutsak mobilizatzeko eta alokairuaren merkatura ateratzen laguntzeko: etxebizitza hutsen kanona eta hobari fiskalak.
 - Berriazko plan bat diseinatuko da, gazteek ere etxebizitza eskubidea gauzatu ahal izan dezaten, laguntza eta neurri zehatzekin.
 - Zabalgunea XXI sozietatea Energia Aurrezteko eta Hiri Birgaitzeko Udal Agentzia (AMARU) bilakatzea. Udal agentziak auzo guztietarako zaharberritze plan integralak diseinatu eta garatuko ditu, eta gainerako administrazio publikoekin lankidetzak eta finantzaketa adostuko ditu.
 - Birgaitzeko udal laguntzen deialdiak berreskuratzea, arreta berezia jarrita eremu degradatuetan.
 - Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia, auzoko eraikinen eta etxebizitzaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta.

ehbildu

- Etxebizitza modu berrien sustapena eta programa pilotuak: Cohousing, erabilera-lagapeneko lankidetzak-etxebizitzak, masoveria edota zuzkidura bizitokiak gazteentzat eta adinekoentzat edo belaunaldi artekoentzat.
 - Etxebizitza tasaren ordenantzaren berrikusketa, behar gehien duten herritarrentzako eskuragarriagoak izan daitezten.
 - Barne-jarduera duten lonjei kanpoan bizia emateko plana, biltegi gisa.
 - Etxebizitzen etxegabetzei buruzko akordioak eta protokoloak berrikusiko dira, eta udalak bitartekaritza prozesuak erraztuko ditu, beharrezkoa izanez gero, Gasteiz zero etxegabete hiri bihurtzeko.
- Mugikortasuna eta espazio publikoa
 - Mugikortasun iraunkorrari buruzko ordenantza berri bat onartzea, honako printzipio hauetan oinarrituta:
 - Mugikortasun aktiboari lehentasuna emango dion moduen antolaketa.
 - Trafikoa baretzea
 - Hiriaren desmotorizazioa
 - Pertsonentzako espazio publikoa berreskuratzea
 - Progresibotasuna ordenantza indarrean sartzean
 - Trantsiziorako neurriak
 - Bizikleta azpiegituren eta ibilbide seguruen urte anitzeko inbertsio plana, ordenantzaren bidez bizikletaren irteera oinezkoentzako espazioetatik segurtasunez egin ahal izateko.
 - Gasteiz 30 hiri izendatzea, trafikoaren lasaitze orokorrari eta errepedearen baretzeari laguntzeko.
 - Gasteizko kaleak ireki: Hiriko hainbat puntutan espazio publikoa birdefinitzea, herritarrei espazioaz gozatzeko eta segurtasun berme handienekin mugitzeko aukera emanaz. Besteak beste, espaloiak, oinezkoentzako espazioak eta bizikletentzako espazio segurua hobetzea eta handitzea. Legegintzaldian zehar jarduerak garatzea Bake eta Frantzia kaleen ardatzean, Gaztelako atarian edo Madril kalean.
 - Industrialdeetarako Mugikortasun Plana onartzea, asmo handikoa eta mugikortasun publiko, iraunkor eta osasungarriaren eskaintza poligono eta lantoki nagusietara zabaltzean oinarritua.

ehbildu

- Mugikortasun jasangarria errazteko ibilgailuen mailegu sistema bat abian jartzea: bizikletak, bizikleta elektrikoak eta patineteak. Sarea hedatzeko, intermodalitatearen arloko lehentasunei jarraituko zaie: lantokietara eta aisialdira joatea, azpiegiturak eta zerbitzu publikoak, etab.
- Udalak ibilgailu partikularren erabilera partekatua errazteko programa bat abian jarriko du. Neurgailu lanak eginez, beharrezko baliabideak eskainiz (aparkalekuak, aplikazio informatikoa, etab.) eta ibilgailua partekatu nahi duten eta behar duten pertsonekin harremanetan jarritz.
- Tranbia Jundizko poligonora eramateko akordio instituzionala, zerbitzua Zabalgana auzorantz zabaltzea aprobetxatuz. Industrialdearen barnealdera zabaltzeko azterlana eta Jundizera edukiera handia iristean eskaintza osagarria eta intermodala definitzea.
- TAOa Gasteizko auzo berrietara iristea planifikatzea eta antolatzea, aldeztuz aurretik Auzo Elkarteekin eta auzoetako eragileekin lan eginda.
- Hiriko sahisbide errepide zaharrari lotutako puntu gatazkatsuetan (Latinoamerika plazako biribilgunea, Esmaltaciones - Carrefour, Borinbizkarrako lotunea, Hiru Sainduak...) trafikoa hobetzeko mugikortasun konponbideen aztertea.
- Eskola eta hezkuntza inguruneetako segurtasuna hobetzeko plana, ingurune hurbilenean ibilgailurik gabeko guneak izendatzeko aukerarekin.
- Alde Zaharra erabat oinezkoentzat jartzeko proiektua, Auzo Elkarteekin eta auzoko eragileekin lankidetzan. Gasteizko hainbat auzotan eremu berriak oinezkoentzat jartzeko azterlana.
- Mugikortasun Iraunkorreko Zentro bat sortzea Goya eraikinean, mugikortasun iraunkorra bultzatzeko eta horri lotutako sektore ekonomikoari laguntzeko. Besteak beste, hierarkia modal iraunkorra, bizikleta bidezko mugikortasuna, mugikortasun elektrikoa eta logistikoa bultzatzeko berrikuntza, ikerketa eta sentsibilizazio lerroak irekiko ditu zentroak. Gai honetan erreferentzia gune izateko asmoz, bai herritarrentzat, bai sektore ekonomikoarentzako.
- Zabalganan eta Salburuan lurperatzea bultzatzeko konpromisoa, eta lotura zuzena Araba erdialderako aldiriko trenaren proiektuarekin, bi auzotan geltoki bana ezarrita (43. orrialdea).
- Gasteizko garraio publikoa elektrifikatzeko urte anitzeko plana, 2030. urtean autobus zerbitzuaren elektrifikazio osoa lortzeko

ehbildu

helmuga jarrita. Diesel autobusen ordezkapen progresiboa % 100 elektrikoak diren ibilgailuekin.

- Garraio publikoa indartzea Salburua, Zabalgana eta Jundiz artean, hiriaren iparraldea zeharkatu eta % 100 elektrikoa (edo BEI) izango den autobus linea berri batekin. Martxoak 8 etorbidetik abiatuta, BEIren plataforma aprobetxatuz Txagorritxuko Ospitaleraino, eta handik Sansomendi eta Zabalganaraino, Jundizera iritsi arte.
- Autobus lineak sendotzea Zabalgana-Sansomendi auzoetan, arreta berezia jarritzuz organoak gehiago mugitzeko aukera ematen duten autobus-unitateetan. Maiztasunak eta zerbitzuak hobetzea Goikolarrarako.
- Autobus zerbitzuaren ordutegia 23:00ak arte luzatzeari buruzko azterlana, hainbat Auzo Elkartek eskatutakoari jarraituz.
- Erakunde arteko akordioa Eusko Jaurlaritzarekin, Gasteizko tranbian 'Gautxori' zerbitzua eskaini ahal izateko.
- Tuvisaren Gautxori zerbitzua zabaltzea gaur gaurkoz halakorik ez duten auzoetara iristeko.
- Tuvisako autobus berrietan bizikletak garraiatzeko tresneria jartzea, edo autobusetan sartzeko aukera ematea, halako aukera eskaintzen duten ibilgailuetan.
- Udalerrian elektrolindegia sare bat garatzea eta bultzatzea, garraio pribatuaren elektrifikazio progresiboa errazteko.
- Emisio Txikiko Zonaldeen garapen progresiboa hirian, gaur egun Alde Zaharrerako proiektatuta dagoenez haratago, modu parte-hartzailean.

ehbildu

Proiektua: Araba Erdialderako aldiriko tren

- Altsasu eta Miranda lotzen dituen Araba Erdialdeko korridorean 24 geraleku dituen aldiriko tren bat sortzearen aldeko apustua egiten dugu, korridore horretan dauden herriguneei eta industrialdeei zerbitzua emango diena. Orain, inoiz baino gehiago, garraiobideen deskarbonizazioa premia larria denean, garraio publiko elektrifikatuaren aldeko apustu estrategikoa egitea behar beharrezkoa denean, ezinbestekoa da trenbide-azpiegitura bultzatzea eta hobetzea, bokazio sozial argia duen eta lurraldea egituratzeko balioko duen tren batekin.
- Gasteizen kasuan, hiriak azken hamarkadetan hartutako hedadurak eta Salburua eta Zabalzana auzoetan gero eta biztanle gehiago izateak hirirako trenbide planteamendu berri bat eskatzen du. Horregatik, EH Bilduk bi auzoetan trenbideak lurperatzearen eta bertan bizi diren milaka pertsoneri zerbitzua emango dieten bi geltoki berri sortzearen aldeko apustua egin du, hiriko barne mugikortasuna murriztuz. Etorkizuneko mugikortasunak trenbidearen bultzada estrategikoa behar du, eta Gasteizek ere aitzindaria izan behar du esparru horretan. Udalerri barrurako garraio publiko elektrifikatuko proiektuak sustatzearekin batera, planteatutako tren lineak gainerako lurralde historikoarekiko konektibitatea hobetuko luke.
- EH Bilduk, gainera, linea horren kudeaketa Euskotrenen esku geratzea eta zerbitzu hori abian jartzeko ardura euskal operadoreak hartzea eskatu du.



TREN SOZIALA

ehbildu

02. Lurperatzea **Salburuan** eta geltokia Soterramiento en **Salburua** y estación



Egungo ikuspegia
Situación actual



TREN SOZIALA

ehbildu

03. Lurperatzea **Zabalganan** eta geltokia Soterramiento en **Zabalgana** y estación



Egungo ikuspegia
Situación actual



2.3.- Klima larrialdia eta energia trantsizioa

- Ingurumena
 - Arabako Lautada/Erdigunea Biosferaren erreserba izendatzeko prozedura abian jartzea, lehen aldiz 250.000 biztanleko hiri bat barnean hartuko lukeen proiektu aitzindari gisa. (47. orrialdea).
 - Ingelesmendiko parke periurbanoaren proiektua garatzea, Badaia-Arrato eta Gasteizko Mendiak lotzeko espazio natural bezala.
 - Gasteizko Mendiak parke natural izendatzeko proiektua bultzatzea udal gobernutik, bertan dauden tokiko erakundeekin elkarlanean babestutako eremuaren planifikazio ahalik eta adostuena lortze aldera.
 - Eraztun berdearen gaur egungo aukerak, gabeziak eta hutsuneak aurkitzeko azterketa Ingurugiro Gaietarako Ikastegitik (IGI). Eraztun berdearen itxiera eta handitzea bideratzeko urte anitzetako plangintza onartu, mugari zehatzekin.
 - Barruko eraztun berdea garatzea, Gasteiz etorbideko zati baten esperientzia partzialetik haratago, hiriko eskala duten korridore berdeekin, barruko eraztun berdea perimetrokoarekin lotzeko.
 - Zadorraren ingurua naturalizatzeko egitasmoekin aurrera egitea, Astegieta inguruan Bengoibaiako meandroa berreskuratuz.
 - Lasarteko legar-hobi zaharren gainean Larragorri parkea sortzea: lurak lagatzeko akordio sinatzea pertsona eta sozietate jabeekin eta/edo desjabetze-espeditenteak hastea obrei ekiteko.
 - Larrein eremuan, Salburuan, Errekaleor ibaiaren ertzetan, ur parke berri bat egingo da. Lur eremu horiek birnaturalizatuko dira, egungo lorategiak aisialdirako eta ingurumen hezkuntzarako espazio bihurtuz, biodibertsitate naturala kontserbatzearen garrantziari lotuta.
 - Hiriko kaleetan sakabanatuta dauden berdeguneen egoerari buruzko azterketa. Auzoz auzo, berdegune horietako batzuk fruitu ortu/baso jangarri bihurtzeko proiektu komunitarioak martxan jarriko dira, auzo elkarten eta eragileekin elkarlanean, kudeaketa komunitarioa izan dezaten.
 - Etxebizitza etxadietako patioak naturalizatzeko esku-hartzeak diseinatzea, berdeguneak handitzeko eta espazio horiei erabilera publiko eta/edo komunitarioak emateko.


ehbildu

- Konpromisoa hartzea uraren kudeaketa publikoan sakontzeko, giza eskukide baten ikuspegitik, gutxieneko bizi hornidura bat ezartzeko eta herritarrek uraren kudeaketan parte har dezaten sustatzeko.
- Alegriako kanalaren egokitzapena, biodibertsitatea kaltetzen ez duen azpiegitura izan dadin.
- Ingurumen ikuskaritza eta ikuskaria sortzeko azterketa teknikoak, jarduera kutsakorrek eta ingurumenari kaltea egiten dioten jarduerak kontrolatzeko.
- Airearen kalitateari buruzko plan berri bat egitea, OMEk ezarritako parametro berriak aintzat hartuko dituen, eta Europako 2030eko karbonogabetze misioarekin bat datozen helburuak izango dituen.
- Ostalaritzako lokalak intsonorizatzeko laguntza ildo bat abian jartzea, Sektorea Birmoldatzeko Plan baten barruan, gaueko aisialdiarekin lotutako zarata arazoei aurre egiteko eta eragindako bizilagunei atsedean kalitatea hobetzeko, auzo elkarteekin eta sektoreko ordezkariak elkarteekin lankidetzan.
- Babes akustiko bereziko eremu bakoitzeko (ZPAE) zonako planak berrikustea.
- Herritartasun Eskolan ingurumen hezkuntzaren ildo indartzea: natura, iraunkortasuna eta kontsumoa.
- Lur zaintzailtzarako programa pilotu bat garatzea.
- Ingurumen hezkuntza esparru guztietan lantzea, klimaren aldeko kultura berri bat bultzatzeko.

ehbildu

Proiektua: Gasteiz eta Lautadako Biosferaren Erreserba

- 1972. urtean, UNESCOk MaB, Man and Biosphere programa sortu zuen, lurraldearen iraunkortasunaren ikuspegitik pertsonak beren ingurunearekin duten harremana hobetzeko, eta, bide horretan, Biosferaren Erreserbak ezarri zituen garapen jasangarrirako eremu gisa. Orduetik, 700 baino gehiago dira munduan dauden Biosferaren Erreserbak, horietako bi Euskal Herrian.
- Biosferaren Erreserbak ondo diseinatuta eta kudeatuta daudenean, benetan tresna baliagarriak dira lurralde bat egituratzeko iraunkortasunaren ikuspegitik. Hori dela eta, EH Bilduren proposamena da UNESCOri helaraztea Biosferaren Erreserba bat sortzeko hautagaitza Zadorraren goi-arroan.



Lautada
biosferaren
erreserba

- UNESCOk lurraldearen egoera, biztanleria, ezaugarriak eta ingurumen eta natura balioak kontuan hartuta definitzen ditu Biosferaren Erreserbak. Gure ustez, Zadorraren goi-arroak betetzen ditu Biosferaren Erreserba izendatzeko beharrezko baldintza guztiak, eta aitopen horrek hainbat onura ekarriko lizkioke lurraldeari. Proposatzen dugun eremua Zadorra ibaiaren arroaren goiko aldeari dagokio, 950 km² guztira, eta 14 udalerrri eta 275.000 biztanle biltzen ditu bere baitan.
- Gasteizko Mendiak, Arratoko mendilerroa, Gorbeiaiko parke naturala, Aizkorri-Aratzko parke naturala, Urkiolako mendilerroa, Entziako mendilerroa eta Iturrietako mendien esparrua da, eta, irizpide biofisikoak eta naturalak lehenetsita, Zadorra ibaia berreskuratuko da lurraldearen ardatz egituratu gisa. Proposamen horrek, beraz, barruan hartzen diren intereseko naturguneak indartzen ditu, sen ona emanez eta haien artean nahiz haiek mugakide diren espazioekin korridore ekologikoak sortzea bultzatuz.
- Erreserba hori, horrela, orain konektatuta ez dauden hainbat naturgune batzen dituen espazio bihurtuko litzateke, eta erreserba berezia izango litzateke, Estatu osoan biztanle

ehbildu

gehien dituen Biosferaren Erreserba izango litzatekeelako, eta mundu osoan ezaugarri horiek dituen gutxienetakoa. Erreserbaren beraren espazioaren barruan tamaina ertaineko hiri bat sartuko bailitzateke, Gasteiz, hain zuzen ere.

- Nazio Batuek askotan onartu dute jasangarritasunaren erronka hirietan jokatzen dela, eta horregatik uste dugu larrialdi klimatikoaren erronkari aurre egin behar zaiola tresnak (biosfera-erreserbak) erronka horietara egokituz.



- EH Bilduk proposatzen duen Biosfera Erreserbaren kasuan, hasiera batean planteatzen den zonifikazioa honako hau da:
 - Eremu nagusia: Periferia eta eremu babestuak. Normalean erdigunean egongo litzateke, baina kasu honetan, ia perimetro osoa izango litzateke, dagoeneko nolabaiteko babesa duten naturguneak eta Lautada osatzen duten mendien hegalak barne. Horietan izango lukete babes eta kontserbazio lanek protagonismo handiena.
 - Eremu tanpoia: Eremu tanpoiak eremu nagusiaren ondokoak izango dira, definitu daitezkeen haien arteko lotura eta korridore ekologikoen eta Gasteizko Eraztun Berdeaz gain.
 - Trantsizio eremua: Eremu horretan sartuko da lurraldearen gainerako zatia, eta, bertan, eginkizun nagusia izango da lurraldeari eustea ahalbidetuko duten jarduera sozioekonomiko iraunkorrak bultzatzea.
- Biosferaren erreserba nazioarteko aintzatespena dira, baina berez ez da ingurumena babesteko figura bat, eta ez dakar berariazko murrizketarik, baizik eta lurralde baten ikuspegi integrala eman nahi duen figura bat da, jasangarritasunaren esparruan proiektatzeko. Espazio horietan, aplikatzekoa den araudia errespetatuz, biosfera

ehbildu

erreserbaren deklarazioaren bidez aitortu diren balioei eustearekin bateragarriak diren jarduerak gara daitezke. Tokiko biztanleria protagonista den guneak dira, eta bestelako babes figura batzuk dituzten eremuak sar daitezke.

- EH Bilduk proposatu du Erreserbaren kudeaketa patronatu baten bidez egitea, eta patronatua osatuko duten udal guztien parte-hartzea eta erabakitze gaitasuna bermatzea, bai eta tokiko interesa duten beste eragile batzuen ere. Funtzionamendurako, kudeaketa plan bat eduki beharko da, epe labur, ertain eta luzerako plangintza integratua emango duena, eta garapenaren tokiko iraunkortasuna eta iraunkortasun globala handitzeko neurri zehatzak jasoko dituen.

- Energia
 - 2030. urterako karbonoan neutroak izango diren 100 hirien Europako misioarekiko konpromisoa. Europako Batzordean aurkeztutako proiektuaren berrikuspena, karbonogabetze helburuak beteko direla indartzeko.
 - Gasteizen energia berriztagarrien hedapena modu parte-hartzailean planifikatzeko konpromisoa, jendaurreko informazio eta eztabaida prozesu baten bidez. Prozesu horretan, eragile interesdun guztiei parte hartzeko gonbita egingo zaie, baita talde politikoei eta herritar guztiei ere, hedapen horren helburuak bermatuko dituen akordio politiko eta sozial ahalik eta zabalena lortze aldera.
 - Aurreko prozesuarekin batera, udalerriko lurzoru antropizatuetan tamaina ertaineko eguzki baratzeak ezartzeko aukera aztertzea eta planifikatzea. Besteak beste, Norysteko presa proiektu ohiaren lurzoruetan, Arkatzako zirkuituan, Ariñez eta Gometxa arteko Jundizko sarbidean, Gamarrako Gasteizerako sarbideko errepide begiztan edo Alegria ibaiaren ubidearen estalki gisa.
 - Energia komunitateak garatzea eta bultzatzea, udalerriko auzoetan eta herrietan proiektu publiko-komunitario gisa, Gasteizen energia garbia eta iraunkorra sortzeko elementu nagusi gisa.
 - Trantsizio Komunitarioko Bulegoak garatzea eta bultzatzea, auzoetan eta herrietan komunitate energetikoak hedatzea bai eta udalerrian energia garbia sortzeko proiektu partikular edo enpresarialak ere ahalbidetuko dituen eragile eta arlo tekniko, juridiko eta administratiboko aholkulari gisa.
 - Energia aurrezteko eta eraginkortasuna bultzatzeko udal ordenantza bat onartzea, Jasangarritasun Energetikoaren Legea betetzen aurrera egiteko eta sakontzeko.
 - Udal Aholkularitza Energetikoak martxan jartzea Gizarte-etxeetan, norbanakoei energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriak proposateko eta aholkua emateko.
 - Produkzio sektorearen kasuan, enpresen energia aholkularitza indartzea eta handitzea, gainerako produkzio sektoreei (merkataritza, ostalaritza, lehen sektorea) laguntza eta babesa eman ahal izateko energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko prozesuetan.

ehbildu

- Udal energia merkaturatzaile bat sortzea sektorean partaidetza publikoa handitzeko, horniduraren gaineko kontrol zuzena izateko, berriztagarrien sorkuntza handitzeko eta energia fakturan udalari dirua aurrezteko errazteko.
 - Pobrezia energetikoari aurre egiteko plana.
 - Eguzki kolektore termikoen instalazioen egoera berrikusteko kanpaina, oso ohikoak direnak Salburua edo Zabalzana bezalako auzoetan; izan ere, gehienak zerbitzutik kanpo daude. Horien egoeraren berri izan ondoren, eta emaitzen arabera, horiek konpontzeko eta martxan jartzeko lan egingo du, edo ekoizpen elektrikorako instalazio fotovoltaiokoez ordezka ditzaten.
 - Gasteizen bero sare bat edo batzuk hedatzeko informazio azterlana, energia eraginkortasuna eta aurrezpena hobetzeko.
 - Galdara komunitarioak dituzten sistemetan banakako kontagailuak instalatzeko laguntza plana.
 - Erregai fosilen galdara sistema komunitarioak ingurumenaren aldetik iraunkorrak diren sistema bihurtzeko azterlana eta plana, gainerako erakundeekin lankidetzan.
- Hondakinak
 - Zero Plastikoko udal Ordenantza onartzea, udalerrian plastikoak ahalik eta gutxien erabiltzeko, eta udal politika lerrotzeko arlo horretako egungo legeekin.
 - Hondakinen udal kudeaketa hondakinak hierarkizatzeke eta gutxitzeko ikuspegitik.
 - Herritarrei laguntzea, zati organikoaren bereizketa hobetzeko, kontzientziazio, prestakuntza eta sentsibilizazio kanpainen bidez.
 - Erakundeen arteko lankidetzak, SDDR sistemaren proba pilotu bat abian jartzeko, ontziak biltegitatu, bueltatu eta itzultzeko, berreskurapena sustatzeko eta hondakinen sorrera murrizteko.
 - Etxeko eta komunitateko konpostatzea bultzatzeko neurriak, landa eremuan arreta berezia jarrita.
 - Hiri hondakinen egoeraren diagnostiko eguneratua, eta Europako Batasunak arlo horretan dituen gidalerroetan eta helburuetan oinarritutako udal plana.
 - Gasteizko zabortegea modu eraginkor eta jasangarrian kudeatzea, gaur egun dituen baldintza eta dimentsioekin,

ehbildu

lixibiatuak eta sarrera korranteak kontrolatuta, eta mantentze lan orokorrak egiteko plangintza egokia eginda.

- Udalerrirako ekonomia zirkularreko estrategia garatzeko oinarriak jasoko ditu Hondakinak kudeatzeko planak . Estrategia horretan, hondakinez gain, ekoizpenarekin, kontsumoarekin, bigarren mailako lehengaiekin, eta abarrekin lotutako gaiak jorratuko dira.
- Jakintza berreskuratzeko eta trukatzeko, berrerabiltzeko eta produktuen bizitza baliagarria luzatzeko lokal edo espazio bat irekitzea: etxetresna elektrikoak konpontzea, bizikletak konpontzea, altzariak berreskuratzea, etab. Espazio hori Diego Rojas kaleko lokal batean kokatuko da, Zaramagan.
- Truke eta berrerabiltze sareak sor daitezen sustatzea.

2.4.- Fiskalitatea

- Datu fiskalen bilketa egokitzea, bereziki pertsona fisikoek ordaindu beharreko prezio publikoak eta udal-tasak, generoaren arabera bereizi ahal izateko.
- Genero arrakalak udal fiskalitatean duen eragina aztertzeke eta neurri zuzentzaileak abian jartzeko urte anitzeko plana.
- Udal ordenantzak berrikustea, gehiago duenak gehiago ordain dezan. Hobari fiskalen erabilera eta aprobetxamendua aztertzea, errenta tarteen arabera.
- 0 tarte bat ezartzea Ondasun Higiezin Zergaren hobari subjektiboetan, diru-sarrera gutxien dutenei hobari handiagoa emateko.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren igoera progresiboa urteko milioi bat eurotik gorako fakturazioa duten enpresei, Bilbo edo Donostiako mailetara iritsi arte.
- Gasteizko etxebizitza hutsak mobilizatzeko zerga neurriak berrikustea.
- Energia eraginkortasunaren trukeko hobariak hiru urtetik bost urtera luzatzea.
- Ibilgailuen gaineko zerga erreformatzeko proposamen bat egitea, udalei malgutasun eta aukera gehiago eskaintzeko gehien kutsatzen duenak gehiago ordaintzen duela dioen printzipioa garatzeko.
- Jarduera ekonomikoen Zergan %25eko hobaria, energia berriztagarriak edo kogenerazio sistemak baliatzeko instalazioetatik energia erabiltzen edo ekoizten duten enpresentzat.
- Oro har, prezio eta tasa publikoak berrikustea, hobarietan errenta irizpideak eta familia unitatearen tamaina sartzeko, halakorik honezkero aurreikusita ez balego.
- Hondakinak biltzeko tasa berri bat berrikusi eta onartzea, bilketa eredu kontuan hartuko duena, eta udal birziklatze-helburuekin bat datorrena. Berritzean, hobarien banaketa berria egingo da, hondakinak biltzeko sistemaren erabilera iraunkorragoa egiten duten zergapekoak saritzeko.
- Udalaren bultzada, posta operadore handiak eta banaketa operadore handiak zergapetuko dituen tasa bat abian jar dadin, espazio publikoa okupatzen eta pribatiboki erabiltzen dutelako

ehbildu

eta gainerako saltoki eta zerbitzuei lehia desleiala egiten dietelako.

- Kirol instalazioak erabiltzeagatik ordaintzen diren prezioak eta tasak egokitzea, gazteentzako tarifa 29 urtera arte luzatzeko.
- Udal ogasunaren ikuskaritza jarduera indartzea. Batetik, giza baliabide gehiago ezareriz, eta, bestetik, gainerako udal sailekiko koordinazioa handituz, bereziki hirigintza sailarekikoa.
- Obra handiko eta obra txikiko lizentzietan autolikidazio sistema ezartzea Eraikuntza eta Obren gaineko Zergaren kudeaketan.

3. BIZITZEAK MEREZI DUEN HIRI ANITZ ETA BIZIA

3.1.- Hiri parte-hartzaile eta gardena

- Gobernantza, gardentasuna eta parte-hartzea
 - Parte-hartzea hobetzeko ildoak
 - Gardentasun Ataria hobetzea. Informazio eskaerei erantzuteko batez besteko denbora murriztea. Informazioa modu eskuragarrian eta hierarkizatuan kokatzea sarean, udalak bere udal proiektuak gauzatzeko legez egin behar dituen txosten guztiak barne hartuta.
 - Gardentasun Atarirako zuzeneko sarbidea Udalaren webgune instituzionaleko azalean.
 - Gasteizko Udaleko langileentzako herritarren partaidetzari buruzko prestakuntza plana.
 - Parte-hartzea zeharkako elementu gisa sartzeari udal egitura eta antolaketa osoan. Udal sailetan eta udal titulartasuneko enpresetan herritarren parte-hartze mailen jarraipena egitea ahalbidetuko duten adierazle multzo bat ezartzea, eta hobekuntzak planteatzea.
 - Udal mailan parte-hartzearen eta gardentasunaren arloan egindako lanaren berri emateko urteko saio monografikoa. Aldi berean, saio monografiko publiko irekia, helburu berarekin.
 - Herritarren parte-hartzea biderkatzen duten udal eragileekin batera lan egitea sustatzeko ekintza plana, arreta berezia jarriz Auzo Elkartean eta guraso elkarteetan.
 - Adinekoen parte-hartzea sustatzea, Bizan zentroen sarean garatu beharreko ekimenen bidez.
 - 'Haurren hiria': Udalerriaren diseinu orokorrean, eta, bereziki, eragiten dieten proiektuetan (parkeen diseinua, jolasguneak) haurren parte-hartzea errazteko berariazko plan bat garatzea, baita hezkuntza programen bidez partaidetzaren kultura sustatuko duten ekintzak ere.
 - Herritarren batzar irekiak abian jartzea, udalerriaren erronka handiei buruz hitz egiteko: Klimaren aldeko Herritarren Batzarra eta Zaintzaren Herritar Batzarra.
 - Aurrekontu parte-hartzaileen ildoak
 - Gasteiz Hobetuz programatik aurrekontu benetan parte-hartzaileetara igarotzeko plana, legegintzaldiaren amaieran sail

ehbildu

bakoitzaren aurrekontuaren zati bat modu parte-hartzailean erabaki ahal izateko (gutxienez % 5, oro har, sail bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta).

- Gasteiz Hobetuz programa birformulatzea, benetan parte-hartzaileak diren aurrekontuen helburura iristeko:
 - Dirusaila pixkanaka handitzea, sail guztien inklusioa bateratzeko.
 - Aurrekontuaren onarpenari lotutako urteko deialdia.
 - Proiektuak eta proposamenak sail/auzo-mailan sektorizatzea.
- Hautatutako proiektuen gauzatzearen jarraipen eraginkorra bermatzea, ideiak sustatzen dituzten pertsona eta elkarteekin batera.
- Parte-hartze tresnen hobekuntza
 - Partaidetzari buruzko Udal Araudia eguneratzea, besteak beste, udalaren osoko bilkuretan txanda herrikoi bidez parte hartzeko aukerak zabaltzeko.
 - Herri galdeketen sustapena.
 - Herritarren postakutxaren hobetzea.
 - Gasteiz aktiboaren eta parte-hartzailearen mapa egingo da, elkarteak, eragileak eta parte hartzeko espazioak kontuan hartuta.
 - Alkatearekin elkarrizketarako zuzeneko guneak abiaraztea, maiztasun jakin batez.
 - Udalean zuzenean parte hartzeko tresnak aztertzea, batez ere Elkarguneak eta Auzoguneak. Auzoguneen eta Elkarguneen egituraren berrikuspen parte-hartzailea egi go da, eta Herritarren Parte-hartze Zuzena Sustatzeko Plana.
 - Elkargune bakoitzak hiruhilero proposamen bat helaraziko dio Partaidetza Batzordeari, eztabaidatu eta adostu dadin.
 - Herritarren eskolaren eremu praktikoak handitzea.
- Auzo elkarteak
 - Parte-hartze Sailak elkartei prozedura burokratikoak eta parte-hartzaileak kudeatzeko eta garatzeko ematen dien laguntza teknikoak hobetzea.

ehbildu

- Protokolo bat egitea, elkarte berriak sortzea edo elkarte horien zuzendaritzan ordezkapenak egitea errazteko.
 - Auzo elkarten arteko koordinaziorako eta lankidetzarako espazioak eta kanalak erraztea.
 - Ekipamendu eta zentro sozial berriak abiatzea Judimendi-Aranan (antzinako izotz pistan), eta Goikolarran.
- Gizarte-etxeak
 - Gizarte-etxea auzora eta bertako errealitate guztietara zabaltzea, topaleku gisa, auzoko plaza gisa.
 - Gizarte-etxeako espazioetan sartzeko eta erreserbatzeko prozesuak sinplifikatzea. Oro har, aldez aurreko hitzordurik gabe herritarrei ahalik eta izapide gehien egitea erraztea.
 - Espazioak inklusio, aniztasun eta partaidetza irizpideen arabera nola erabiltzen diren aztertzea, Gizarte-etxeetan espazio libreak (edari-makinen espazioa...) handitzeko aukerari begira.
 - Espazioen erabilera eskaeraren arabera egokitzea: liburutegia, ikasketa gelak, eta abar.
 - Egon daitezkeen espazioak/ordutegiak egokitzea, kirol praktika alternatiboak edo minoritarioak errazteko.
 - Urtero udal kirol jardueren eskaintzan kirol praktika berriak sartzeko hautatzeko prozesu parte-hartzailea.
 - Hileta zibilak egiteko udal espazio espezifiko bat abian jartzea. Gainera, hileta zibilak egiteko aukera ematen duten udal-espazioak identifikatzea eta haietarako sarbidea erraztea, baimenak lortzeko epeak arinduz.

3.2.- Hiri feminista

- Gobernantza feminista
 - Behatoki Morea martxan jartzea: behatoki bat, emakumeen elkarteen eta mugimendu feministaren parte-hartzearekin, politika feministen integrazioan aurrera egiteko, 3 ikuspegitatik lan eginez:
 - Genero ikuspegiak politika publikoetan duen iragazkortasun eta zeharkakotasun maila.
 - Emakumeek diru publikoarekin finantzaturako jardueretan (jaiak, kontzertuak, kultura...) duten presentzia eta ikusgarritasuna.
 - Erakunde arkitektura eta enplegu publikoa politika feminista aurreratuenetara egokitzea.
 - Udal Ordenantza feminista. Udalerrian gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean aurrera egitea ahalbidetuko duen ordenantza berri bat ezartzea.
 - Udal ordenantzak ikuspegi feministatik berrikustea. Gaur egun indarrean dauden ordenantzak berrikusteko konpromisoa hartzen dugu, araubide guztiak gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren zerbitzura daudela ziurtatzeko.
 - Feminismoen zerbitzua. Egungo berdintasun zerbitzutik feminismo zerbitzu batera igarotzea proposatzen dugu, balio sinbolikoagatik ez ezik, udal praktika paradigma feministan sustraitzeko ere.
- Bortxakeria matxistatik udal librea
 - Emakumeen Etxean dauden baliabideei buruzko informazio gune bat irekitzea eta indarkeria matxistaren prebentzioari buruzko aholkularitza ematea.
 - Erakundeen arteko lankidetzaren eskaintza, Eusko Jaurlaritzaren menpeko indarkeria matxistaren zentro integrala abian jartzeko.
 - Indarkeria matxistaren prebentzioa: 'Beldur barik' programa indartzea eta gazteekin lan egitea.
 - Indarkeria matxista mota berriei arreta ematea, hala nola indarkeria digitalari. Horretarako, udalerraren premien azterketa espezifikoa egingo da, eta, ondoren, egindako diagnostikoari egokitutako neurriak ezarriko dira.
 - Gasteizko Udalean sexu jazarpena, jazarpen sexista edo sexua, sexu orientazioa, edo genero-identitateari lotutako jazarpena

sahiesteko eta horri aurre egiteko protokoloa berrikustea, eta, behar izanez gero, behar bezala abian jarriko dela ziurtatzea.

- Gaueko aisialdian eta jai eremuetan indarkeria sexistaren kasuak sahiesteko eta horietan jarduteko protokolo bat abian jartzea. Sektoreko eragileekin, emakume elkarteekin eta mugimendu feministarekin batera egingo da protokolo hori.
 - NBE Emakumeak erakundeak Habitat III nazioarteko agendaren esparruan sustatutako 'Hiri seguruak eta espazio publiko seguruak' programan sartzea. Ekimen global honek ikuspegi konparatiboa du, eta ikuspegi integralak landu, inplementatu eta ebaluatzen ditu eremu publikoetan emakumeen eta nesken aurkako sexu jazarpena eta beste sexu indarkeria mota batzuk saihesteko eta horiei aurre egiteko.
- Emakumeen ahalduntzea
 - Emakumeen Etxea indartzea, emakumeentzako topagune gisa, ahalduntzerako eta pentsamendu eta praktika feminista bat eraikitzeke, proiektuari finantzaketa handiagoa emanez, irekiera ordutegia zabalduz eta espazioaren erabilizaile eta kudeatzaile potentzialen beharrei modu malguan erantzunez.
 - Emakumeen elkarteak eta mugimendu feminista indartzea, haien eskaerei erantzunez eta horretarako dagoen dirulaguntzen lerroaren finantzaketa handituz.
 - Sorginenea elkarteari aitortzea Emakumeen Etxea kudeatzeko lehentasunezko erakundea dela.
 - Ahalduntze feministako eskolaren aldeko apustu irmoa, hiri feminista bat eraikitzeke ezinbesteko tresna gisa.
 - Hiriko kale izendegiaren bidez emakumeen ikusgarritasuna hobetzen laguntzea, pixkanaka kale-izendegi horretan emakume garrantzitsuak sartuz.
 - Maskulinitate berriak
 - Gizonentzako sentsibilizazio kanpaina espezifikoak eta gizonentzako maskulinitate berriei buruzko prestakuntza tailer teoriko-praktikoak, aitatasun arduratsuari, erantzukidetasunari eta kontziliazioari buruzko edukiekin.
 - Gizonentzako praktika zaintzaileak. Esparru publikoan eta pribatuan maskulinitate berriak praktikatik lantzeko eta eguneroko bizitzako zaintza beharrei erantzuteko espazioak.
 - Maskulinitate berriak lantzen ari diren gizon taldeei laguntzea.

ehbildu

3.3.-LGTBI+ Hiria

- Sexu aniztasuna
 - LGTBI+ Mahaia sortzea udal mailan, udalaren LGTBI politikak biltzeko, eztabaidatzeko eta definitzeko gune gisa.
 - Gasteizko LGTBI+ mugimenduaren memoria berreskuratzeko proiektua, legegintzaldi osorako plan baten bidez (ibilbidea, plakak...).
 - Hirugarren laukitxoa martxan jartzea udal-izapide guztietan, ondoren datuen jarraipena egin ahal izateko eta zerbitzu bakoitzean ekintza espezifikoak hartzeko.
 - Trans Legeetatik eratorritako aldaketetara egokitzea udalaren klausula sozialetan eta udal mailako araudi osoan.

3.4.- Hiri gaztea

- Gazteria politikak
 - Administrazioa
 - Udalak gazteei zuzendutako politika koherenteak egiteko ardura bere gain hartuko du. Zentzu horretan, pertsona gaztetzat joko ditu 14 eta 29 urte bitarteko adina duten herritarrak, eta definizio hori aintzat hartuko du bere zerbitzuen eskaintza eta tarifak arautzerakoan.
 - Enplegua
 - Udalak azpikontrataturako zerbitzuak era zuzenean eskaintzeko aukera teknikoak aztertuko ditu; bereziki gazteongan eragina duten kasuetan. Hala nola, kirol jardueretan edo udako kanpainan.
 - Udalak azpikontrataturako dituen zerbitzuen pliegoak berrikusiko ditu, langile horien lan-baldintzak eta eskaintako zerbitzua hobetzeko asmoz.
 - Udalaren enplegu planak (Eskualdeko Plana zein Gazteen Enplegu Plana) indartuko dira, gazte gehiago kontratatzeko aukera emanez.
 - Enplegu planen bidez kontratatutako gazteei dagokien lan hitzarmena aplikatuko zaie, eta udalean funtzio horiek betetzen dituzten gainontzeko langileen baldintza berdinak bermatuko zaizkie.
 - Etxebizitza
 - Udalak, bere jabetzako etxebizitzekin, Udal Etxebizitzen Alokairu Parkea sortuko du; horiek babestutako alokairuan eskainiak izateko gazteontzat zein pertsona zaurgarrientzat. Gazteei dagokienez, hasteko, Bustaldeko (Aretxabaleta) 42 etxebizitzak birgaituko ditu Udalak gazteoi babestutako alokairuan eskainiak izateko.
 - Udalak gazteoi zuzendutako etxebizitza komunitarioen proiektuak abiatuko ditu. Horietan lehena, Hedegile kaleko 127. zenbakian eraikiko du. 30 urte arteko gazteoi zuzenduta eta banakako logelak espazio komunekin uztartuko dituena (egongelak, sukaldeak, jangelak etab.)
 - Gizarte Segurantzarekin lankidetzat ituna sinatuko da Posta kaleko 42. zenbakian dagoen eraikinaren lagapena lorteko; 2014tik hutsik dagoen sei solairuko eraikina. Eraikina eskuratu ondoren, etxebizitzak egingo dira bertan, Udal Etxebizitzen

ehbildu

Alokairu Parkera gehituak izan daitezzen eta gazteentzako babestutako alokairuan eskuragarri jartzeko.

- Buru osasuna
 - Gazteentzako psikoaholkularitza zerbitzuaren kontsulta kopurua % 50 baino gehiago handitu ondoren, zerbitzu horren aurrekontua indartu eta % 50 igoko da, gutxinez 100.000 eurora arte.
- Garraioa
 - Gazteen artean bizikletaren erabilera sustatu eta errazteko zein egun gutxiegi baliatzen diren azpiegiturei erabilera emateko, bizikletak gordetzeko aparkaleku estaliak doakoak izango dira 30 urtetik beherakoentzat.
 - Tuvisako autobus publikoetan 30 egunerako BAT txartelaren bonuak pertsona gazteentzako duen tarifa baliatzeko adina 26 urtetik 29 urtera igoko da.
- Gazte espazioak
 - Udalerriko hainbat zonaldeetan nabaria da gazteok elkartu, saretu eta proiektuak aurrera ateratzeko dagoen espazioen falta. Horri erantzuteko, Udalak autogestioan oinarrituko den gazteentzako lokal bat martxan jartzeko prozesu publiko-komunitarioa abiatuko du. Konpromisoa lehen Gazte Lokal bat irekitzea izango da legegaldian, eta behin martxan dela, beste auzo batzuetan antzeko proiektuak irekitzeko aukerak aztertuko dira.
 - Otazuko tren geltoki zaharra gazteentzako eta aisialdi taldeentzako aterpetxe izan zen 2011ra arte; oso baldintza merke eta eskuragarrietan, baina azken 12 urteetan itxita egon da. Udalak dagoeneko egokituta dagoen espazio hau berriz ere gazteentzako aterpetxe bezala martxan jarriko du.
- Parte-hartzea
 - 16 urtetik gorako pertsona guztiek udalerriko herritarren kontsulta prozesuetan parte har dezaten gaitzeko konpromisoa, bozkatu beharreko gaia edozein dela ere.
- Euskara
 - Gazteei zuzendutako euskarazko ekintzen eskaintza aztertuko du udalak, eta esparru ezberdinetan (aisialdian, kulturgintzan, heziketan, etab.) eskaintza nabarmen handitzeko plangintza prestatuko du, gazteen egoera soziolinguistiko errealarari erantzun eta erabileran jauzia egiteko modu bezala.

ehbildu

- Gazteak euskarazko kultur produkziara hurbiltzeko asmoz, zuzeneko emanaldietarako bonuak eskaintzeko proposamena garatuko du udalak, beste administrazio eta eragileekin elkarlanean sustatzeko asmoz.
- Gazte sorkuntza
 - Gasteizko sortzaile gazteak sustatu, saretu eta ezagutzera emateko helburuarekin, urtean behin Gazte Plaza ekimena antolatuko du Gasteizko Udalak. Azoka formatuan, erakusketa, hausnarketa eta aisialdia uztartuko dituen gure udalerriko sortzaile gazteen asteburu bateko ekimena.

3.5.- Hiri kulturzale eta aktiboa

- Kultura
 - Oihaneder Jauregia birbideratzea, diziplina anitzeko kultur sorkuntzarako eta publikoak sortzeko gune gisa. (67. orrialdea).
 - Gasteizko espazio eszeniko handi gisa Iradier Arena eraberritzeko proiektua, ideia-lehiaketa baten bidez. (69. orriadea).
 - Kultura jardueretarako erabil daitezkeen espazioen katalogoa garatzea eta sortzea. Sare lana eta udaleko espazio publikoen osagarritasuna sustatzea, beste administrazio publiko batzuen edo parte hartu nahi duten eragile pribatuen espazioak sarean sartzeko aukerarekin.
 - “Horma askeak”: Muralak edo graffitiak egiteko aukera eskainiko duen proiektua. Horretarako, udalak horma libreen inbentario bat osatuko du eta aldi berean proiektuan parte hartu nahiko duten artisten zerrenda.
 - Kulturklik Pro atariarekin lankidetzat ituna sinatuko da, udalaren eta kultur sektorearen arteko harremanak errazteko eta bideratzeko bitarteko modura.
 - “Auzoak loratu”. Kultur eskaintza deszentralizatu bat sustatzeko programa berria, Gasteizko auzoetan Kulturguneak martxan jarrita. Eskaintza hori dinamizatzeko auzoetan programazio batzordeak sortuko dira, auzo bakoitzeko eragileekin eta auzokideekin elkarlanean.
 - Gasteizko Udalak, gainerako elkarteekin lankidetzan edo bere kabuz, zuzeneko kulturaren kontsumoa bultzatuko du, bereziki gazteen artean, horretarako beherapenak, bonuak eta antzekoak eskainiz.
 - Ondareari dagokionez, Gasteizko Ondarearen mapa eta inbentarioa sortuko dira. Mapa eta inbentario horrek kontuan hartuko du ondare materiala eta immateriala, alor ezberdinak kontuan hartuta (Ondare arkitektonikoa, industrial, ondare feminista...).
 - Gasteizko ondarearen interpretazio zentroaren sorrera, egindako lan hori ezagutarazteko tresna gisa. Ohiko museoalizio proiektuetatik urrundu, eta Alde Zaharrak/hiri osoak ematen dituen aukerak baliatuko dira, ‘aire zabaleko’ museoaren filosofiari jarraituz. Azken finean, Gasteizko Hiriaren historia baino gehiago, *gasteiztarron historia* balioan jarri, hausnartu eta transmititzeko proiektua izango da.

ehbildu

- Interpretazio zentroaren sorrerari lotuta, Ondarearen Dibulgaziorako plana egingo da, hainbat bitarteko baliatuta: bisita gidatuak, multimedia bitartekoak, solasaldiak, jaialdiak, tourrak, etab.
- Ondare arkitektonikoa birgaitzeko eta erabileran jartzeko udal plana onartu.
- Udal plan horren barruan, Erdi Aroko Alde Zaharraren mendebaldea birgaitzeko eta biziberritzeko esku-hartze integrala garatuko da. Esku-hartze horrek, gutxienez, honako elementu hauek jasoko ditu:
 - San Migel elizaren atzealdeko hodia berreskuratzea, harresi osoan zehar pasealeku bat osatzeko, inguruko bizilagunak kontuan hartuta.
 - Maturana-Berastegi, Alava-Esquivel, Eskoriatza-Esquivel eta Oihaneder Jauregiak birgaitzeko eta erabiltzeko bide orria.
 - Aldabe gizarte-etxearen inguruan errealitate areagotuko proiektua egitea, Santo Domingo komentu zaharra ezagutarazteko eta haren balioa nabarmentzeko.
 - Gasteiz Antzokiaren irekiera suspertze planaren barruan txertatzea, bere potentziala ahalik eta gehien aprobetxatzeko.
 - Merkataritza eta esku-hartutako eremua suspertzeko eta bultzatzeko neurriak.
- Alde Zaharreko Maturana-Berastegi jauregia eraberritzea eta birgaitzea, prozesu parte-hartzaile eta publiko-komunitario baten bidez, eta, ondoren, auzoarentzako zentro sozial gisa erabiltzea, prozesua aprobetxatuz haren garrantzi historikoa eta soziala errespetatzeko eta balioesteko.
- Udalaren jarduera eta programazio guztietan sorkuntza feminista eta emakume artisten lanaren zabalkundea sustatzea.

ehbildu

Proiektua: Oihaneder sortegia

- Pasa den urtean 25 urte bete ziren Oihaneder Jauregia kultur-zentro gisa berrantolatu eta ateak ireki zituenetik. Jauregiaren eraikin birmoldatuaren eta azpian dagoen ur biltegiaren artean, 6.423 metro koadroko espazioa du erabilgarri. Horri gehitu behar zaio kanpoaldean duen 1.588 metro koadroko lorategia.
- Bitarte horretan fase eta erabilera ugari izan ditu. Oso aktiboa izan zen zentroa Xabier Arakistainen gidaritzapean, baina gerora apaldu zen bere jarduna, nabarmen. 2008. urtean hasitako krisi ekonomikoari jarraituz aurrekontua eta jarduera zeharo mugatu zitzaizkion.



OIHANEDER
S O R T E G I A

KULTUR SORKUNTZARAKO ZENTROA GASTEIZEN

- Hortik aurrera, nagusiki, erabilera mistoa izan du eraikinak. 2014. urtean Euskararen Etxea bertan kokatu zen. Partekatutako erabilera izanagatik, kultur jarduerak erakutsi eta garatzeari ez dio erabat utzi zentroak: World Press Photo erakusketarekin lankidetzan aritu da, sorkuntzarako laguntza programak ditu, hainbat proiektu artistiko egin ahal izateko deialdiak bideratu ditu, eta graduondoko programa batekin ere elkarlanean ari da EHUko Arte Ederretako fakultatearekin.
- Erabilera misto horri amaiera emango zaio aurten, urte luzeko itxaronaldia amaitu eta Gasteiz Antzokiak behingoz ateak irekiko dituelako, Euskararen Etxe eta egoitza iraunkor gisa. Erabilera aldaketa horrek Oihanederren eraikinarekin aurrerantzean zer eta nola egin nahi den hausnartzeko aukera ireki du.
- EH Bilduren apustua da aurrera begira Oihaneder kultur-zentro bezala indartzea, disziplina anitzetako sorkuntza eta produkzio espazio malgu, ireki eta parte-hartzaile bezala. Espazioak izan dezakeen potentzial osoa kulturgintzaren eskuetan jarri nahi dugu, azken finean.
- Sektorearen aspaldiko kezka da, eta pandemiak areagotu du, sarritan bultzada edo laguntza instituzionala, ekonomikoa edo bitartekoena, soilik iristen dela prozesuaren amaiera hurbiltzen denean. Udalak kultur-programatzaile bezala duen ohiko izaera gainditu behar da (espazioak eskaini eta emanaldiak/ekintzak programatzen ditu, eta ondo dago, baina ez da aski), eta kultur eta sorkuntza sektorearen bidaide, animatzaile eta konplize bilakatzeko ahalegina egin behar du.
- Gasteizen kultur sektore aberatsa dugu, eragile, espazio eta proposamen oso ezberdinak, publikoak nahiz pribatuak. Udalak gehiago egin dezake sorkuntza sustatzeko eta herritarrak kulturgintzan parte-hartzea bultzatzeko. Erronka da udala prozesu eta kultur aukera berri eta berritzaileen erraztaile izatea. Ez inor ordezkatzeko edo alde batera botatzeko borondatearekin, baizik eta honezkero dagoena osatzeko, sarean eta modu

ehbildu

parte-hartuan lan egiteko, eta kulturgintza osoari babes instituzionala emateko ideia argiarekin, kultura bera balio komun eta komunitario gisa ulertuz.




- Zentzu horretan, Oihaneder kultur eragile anitz eta osagarrien arteko topaleku eta sinergia leku gisa irudikatzen dugu. Sortzaileen, taldeen, kultur eta sormen industriaren, instituzioen, eta herritarren arteko elkarlana eta osagarritasuna bilatu, eta aukera berriak sortzeko eta martxan jartzeko espazio bizia.
- Oihaneder Sortegi bezala berrasmatzea Gasteizko kultur sektore osoarentzat erronka gisa aurkezten dugu. Entzuketa eta diagnostiko ariketa zabal batetik abiatuta, zentroa zer eta nolakoa izango den kultur gileekin elkarlanean definituko litzateke. Erabilera eta espazioen banaketa hutsetatik harago joango litzateke prozesu hori, kudeaketa modu zabalago eta parte-hartzaileago batzuk zehazteraino. Azken helmuga gisa, Oihaneder bihurtu nahi dugu kulturgintza espazio anitz, ireki, erabilgarri eta erreferentziala, baina hura sortzea ere prozesu aberasgarria eta kitzikagarria bilakatuko dugu.
- Azken finean, kulturaren balio eraldatzaileak duen potentziala askatzeko gunea izango da: sektorea bera eta sortzaileak balioan jarri eta bultzatuko dituen, herritarrek kultur ekoizpen zein kontsumora sarbidea izatea erraztuko duena, eta gizartearen ikuspegi kritikoa garatuko dituen.

ehbildu

Proiektua: Iradier arenaren erreforma

- 15 urte baino gehiago igaro dira Iradier Arena martxan jarri zenetik, eta, egungo baldintzetan, beste 15 urtez berdín jarraituko du. Esku-hartze integral, indartsu eta handinahitsu baten unea da, eraikinak duen potentzial guztia aprobetxatu eta erabilera anitzeko eraikin erreal bihurtu ahal izateko, asmo eszeniko eta kultural argiarekin.
- Iradier Arenak erreforma sakona behar du. Birgaitze horrek egungo egituraketaren mugak gainditu behar ditu, eta eraikinaren erabilera goitik behera birpentsatu behar du. Hau da, egiturazko aldaketak eta egokitzapenak egiteko unea da, espazioa benetan erabiltzeko modukoa izan dadin, erosotasun eta kalitate maila onekin.



IRADIER

A R E N A

B I R M O L D A T Z E K O B I D E - O R R I A


- Printzipal Antzokiaren eraberritzea aurreikusitakoa baino apalagoa izateak esan nahi du orain merezi duela ahaleginak areagotzea eta asmo handiko apustu bat egitea Iradier Arena erabilera anitzeko espazio eszeniko gisa birgaitu eta berriz diseinatzeko.
- Duela zenbait urteko azterlan baten arabera, 3 milioi euro inguru behar ziren kalitatezko eskaintza bermatzeko. EH Bilduren iritziz, kopuru hori gainditu beharko da egiturazko erreforma bat egin nahi bada. Era berean, espero dugu gainerako erakundeak, bereziki Eusko Jaurlaritza, bide orri honetan aliatuak izatea, Gasteizek eremu horretan gainerako hiriburuekin duen desoreka zuzentzeko.
- Dagoeneko eginda dagoen eraikin batean proiektuari ekiteak erreforma baldintzatuko du, ezin bestela izan, baina atea irekitzen dituen egoera ere bada. Irtenbiderik onena diseinatzeko, irudimena, ausardia eta ezagutza teknikoa behar dira. Horregatik guztiagatik, EH Bilduk konpromisoa hartu du udal gobernutik ideien lehiaketa bat abiarazteko, Iradier Arenako birgaitzeari buruz erabakitzeko. Gure kultura eta aisialdi eskaintza hobetzeko eta formatu ertain eta handiko ikuskizunak programatzeko atea irekitzeko ekarpena, gaur egun kalitate handiko, edukiera zabaleko eta akustika oneko espaziorik ez dugunean.
- Ideia-lehiaketa hori prestatzeko, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren laguntza izan nahi dugu, baita kultura sektoreko eragileena ere. Besteak beste, uste dugu lehiaketa horretara aurkeztutako proiektuek printzipio hauei erantzun beharko dietela:
 - **Erosotasuna:** Helburua ahalik eta espazio erosoena osatzea da, horretarako behar diren egokitzapen guztiak eginez. Garrantzitsuena klimatizazio sistema bat

ehbildu

instalatzeari litzateke, eraikina behar bezala berotu ahal izateko. Gainera, sarreren eta irteeren diseinua, harmailen ezaugarriak, eserlekuak eta abar kontuan hartu beharko lirateke.

- **Eraginkortasuna:** Era berean, erosotasun handiagoa lortzeko, eraikinaren energia beharrak murrizteko eta ahalik eta autokontsumoen tasarik handiena izateko, *passivhaus* estandarrak gidatuko du birgaitzea. Horretarako, energia eraginkortasun handiko ekipoa, isolamendu maila handiak, arkitektura bioklimatikoa eta energia-iturri berriztagarrien instalazioa konbinatu beharko dira.
- **Integrazioa:** Egungo azpiegituraren gabezia nagusietako bat intsonorizazio falta da. Erabilera anitzeko egitura bultzatu nahi bada, ahalik eta eragozpen gutxien eragin behar zaizkie auzokoei, zarata ateratzea ahalik eta gehien mugatzen duen intsonorizazio orokor baten bidez.
- **Balioaniztasuna:** Beste helburuetako bat Iradier Arena erabilera anitzeko benetako espazio izatea da. Beraz, kontuan hartuko da proposamenen balioaniztasuna. Hau da, Iradier Arenako espazioa ahalik eta modu gehienetan banatu eta antolatzeko aukera, formatu eta edukiera desberdineko ikuskizunak programatu ahal izateko: kontzertuak, musikalak, antzerkia, musika klasikoa, dantza, baina baita kirol-ekitaldiei, merkatuei, azokei edo bestelako jardueri ateak irekitzeko aukera zabalik utzita ere.
- **Kalitate akustikoa:** Gaur egungo eraikinaren beste gabezia funsezko bat. Inoiz ez zen diseinatu ikuskizun eszenikoak lehenesteko, eta, beraz, ez ditu betetzen gutxieneko baldintza akustikoak. Kalitate akustiko hori hobetzeko proposamenak eta proposatutako egokitzapenak hartuko dira kontuan, aurreikusitako formatuetan ahalik eta kalitate onena bermatzeko. Erreforma akustiko horrek bermatu behar du hainbat diziplinako funtzioak eta ekintzak kalitatez gozatu eta eskaini ahal izango direla.
- **Osagarritasuna:** Bestalde, beharrezkoa da Iradier Arena indartzea ekosistema kultural baten eta azpiegitura sare handiago baten parte gisa. Printzipal Antzokia, gizarte-etxeetako antzokien sarea, Europa jauregia, Buesa Arena, Mendizorrotzako kiroldegia eta Gasteizen dauden areto pribatuen eskaintza zabala dago. Osagarritasun hori hobetzeko emandako irtenbideak eta ekosistema horretan Iradier berriturako proposatzen den lekua eta espezializazioa balioan jarriko dira.
- **Aurrekontua:** Ideien lehiaketara aurkeztutako proposamen guztiek aurrekontu bat izan beharko dute. Proposatutako aurrekontua aurreko printzipioen betetze mailarekin lotuko da, eta Iradier erabilera anitzeko eraikin moderno eta kalitatezko bihurtzeko helburuarekin, bokazio eszeniko argiarekin.

7. Oinarriak



Erosotasuna: Ikusleentzako ahalik eta espazio erosoena osatzea da helburua, horretarako behar diren egokitzapenak eginez. Nagusia, klimatizazio sistema bat ezartzea.



Energia eraginkortasuna: Eraikineren behar energetikoak murrizteko eta autohormikuntza energetiko ahalik eta handiena lortzeko, birgaitzea Passivhaus estandarra jarraituz gauzatuko da.



Integrazioa: Erabilera anitzeko espazio bezako bultzatu nahi bada, auzokideentzako ahalik eta ondorio gutxien izatea bermatu behar da, zaratak konpora ateratzea ahalik eta gehien mugatuko duen insonorizazio orokor baten bidez.



Balio-aniztasuna: Aintzat hartuko da balio-aniztasuna. Hau da, Iradierren espazio ahalik eta modu gehienetan banatu eta egituratu ahal izatea, formato eta ikusle kopuru ezberdinak dituzten ikuskizunak programatu ahal izateko.



Kalitate akustikoa: Kontuan hartuko dira ahalik eta kalitate handiena bermatzeko proposatzen diren egokitzapenak formato ezberdinetarako. Erreforma akustiko horrek bermatu beharko du disziplina ezberdinetako emanaldiak kalitatez eskaini eta jarraitu ahal izatea.



Osagarritasuna: Iradier kultur ekosistema eta azpiegitura sare handiago baten parte gisa indartu beharra dago. Kontuan hartuko dira osagarritasuna hobetzeko planteatzen diren irtenbideak eta Iradierentzako proposatzen den lekua eta espezializazioa.



Aurrekontua: Ideien Lehiaketarako aurkezten diren proiektuek aurrekontu bat prestatu beharko dute. Aurrekontuaren balorazioan kontuan hartuko da proposamenak naraino betetzen dituen baldintzak, eta azken helburua, erabilera anitzeko espazio moderno eta kalitatezkoa izatea, betetzeko egokia den edo ez.



- Aurkeztutako proiektuen balorazioa epaimahai aditu batek egingo du. Mahai horrek hiru proiekturik onenak aukeratu beharko ditu. Ondoren, aukeratutako hiru proiektuak aurkeztu eta jendaurrean ikusgai jarriko dira. Prozesuaren amaieran herritarren esku geratuko da Iradier Arena erreformatzeko diseinua eta proposamena aukeratzea, galdeketa sektorial baten bidez.

ehbildu

- Aisialdia
 - Auzoetan garatzen diren aisialdi eta festa ekintzen azterketa egingo da, gabeziak atzeman, eta irtenbideak bilatzeko.
 - Komun publikoen eskaintza indartzea hiri osoan, hainbat urterako plangintza baten bidez, eta bereziki eraztun berdeari lotutako naturguneen inguruan.
 - Auzoetako jai-eremuetan higieena eta garbiketa hobetzeko asmoz, komun publikoen eskaintza bermatu eta finantzatuko du udalak.
 - Udalak Gasteizko jai batzordea sortuko du, festen diseinua, egokitzapenak, aldaketak eta formatoari buruz gogoeta eta eztabaida bideratzeko eta jaiekin zerikusia duten eragileen topaleku izan dadin.
- Kirola
 - Gamarrako bizikleta belodromoa birgaitzea, estalki bat gehituta. Igerilekuekin mugakide diren kirol eremuak aztertzea eta berrerabiltzea, egungo jarduerak indartzeko eta beste kirol-jarduera batzuei lekua eskaintzeko.
 - Kirolgunea eraberritzea Voluntaria Entrega eta Batzar Nagusien kaleen arteko oinezkoentzako gunean, Lakua-Arriagan. Espazioen eta erabileren banaketa erabakitzeke programa parte-hartzailea.
 - Zabalgana auzorako kirol ekipamenduko eremu berria, Mahatma Gandhi kalean. Auzoko eragileekin batera, erabilerak eta lehentasunak definitzea.
 - Ruiz de Garibay ikastetxe zaharreko pilotalekua irekitzea, Zaramagako bizilagunek erabil dezaten.
 - Judimendi parkeko eta Arana parkeko kirol kantzak eraberritzea, saskibaloizelai, boleibol edo zelai misto gisa erabiltzeko.
 - Parke osasungarrien proiektua hastea. Pertsona guztientzat ariketa fisikoa egiteko makinak instalatzea, baina, bereziki, adinekoei aire zabalean ariketa egitea errazteko. Judimendi eta Aranbizkarra parkeetan ekipamendua instalatzen hasiko da.
 - Olanarbeko pista estalia erreformatzea eta eguneratzea, patin gaineko hockey-pista gisa erabiltzeko.
 - Udal futbol zelaiak berritzeke plana, zaharrenak diren zelaietatik lanak hasita, eta esku-hartzeak garaiz planifikatuz lanak abiatu ahal izatea azkartzeko.

ehbildu

- Olaranbeko eta Betoñuko udal zelaien eremuan, gaur egungo espazioen eskaintza berrikusi eta birbanatzea, beste kirol-espezialitate batzuek erabil dezaten (cricket, softball, beisbol...).
- Futbol zelaien erabilera ordutegia igande arratsaldera arte luzatzea, lehiaketen garapena errazteko.

ehbildu

3.6.- Hiri euskalduna

- Euskara
 - Gasteiz Antzokiaren eta Euskararen etxe berriaren abiatzea euskararen normalizazioan eta udalerriaren euskalduntze prozesuan mugarri izan dadin, beharrezko finantziak bermatuko du Gasteizko Udalak. Hala, urteroko finantzaketa gutxienez 500.000 euroena izatea bermatuko du, euskalgintzak eskatutakoari jarraituz.
 - Gasteizko Udalak espazioaren kudeaketa partekatua edo autogestioa ahalbidetzeko mekanismoak jarriko ditu martxan, espazioaren kudeaketan euskalgintza protagonista izatea bermatuz.
 - Gasteiz Antzokia zabaltzeak hiri osoan euskarak jauzi kualitatiboa emateko balio behar izan du. Jauzi horren bidelagun izateko, Gasteizko Udalak legegaldien joanean euskararen aurrekontua %30 handitzeko konpromisoa hartuko du. Hazkunde hori pertsonal gastutik aparte dauden sailetan gauzatuko da.
 - Gasteizko Udalak euskara eta udalerriaren euskalduntze prozesua balioan jarri zein bultzatzeko asmoz, bi urtetik behin ospatuko den Gasteiz Euskararen Hiria ekimena abiaraziko du. Herritarrekin eta euskalgintzako eragileekin elkarlanean, ekintza kultural eta aldarrikatzailea izango da: kultur eskaintza, eztabaida zein hausnarketa espazioak, ekitaldiak eta bestelako ekimenak uztartuko ditu.
 - Euskararen sustapenak duen balio estrategikoa aldarrikatzen du udalak, eta zeharlerro bezala bultzatuko du bere jardunean. Besteak beste, Euskara, Kultura eta Hezkuntza departamentuen arteko elkarlana sustatuko du, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren pareko sailekin lankidetzaren areagotzeko espazioak martxan jarriko ditu, euskalgintzako norbanako eta eragileen ekarpenari irekiak.
 - Udalak diruz finantzatutako lankidetzaren eta itun ezberdinetan aurreikusiko da hainbat urterako egonkortasun ekonomikoa bermatuta egotea. Oro har, Euskararen Ekintza Planaren iraupenari lotuko zaio hainbat urterako berme hori.
 - Euskarak udal aisialdi eskaintzan, gizarte etxetako ikastaroetan, kultur eskaintzan edo informazio batzarretan duen egoera aztertu, eta presentzia nabarmen handitzeko plana onartuko da.
 - Hezkuntza ez-arautuko zentroi dagokienez (Musika Eskola eta Dantza Kontserbatorioa), heziketa euskaraz jasotzeko aukera

ehbildu

bermatu dadin plana onartuko da. Bi zentroek Euskara Plan propioak izango dituzte.

- Udal diruz finantzaturako Arte eta Lanbide Eskolari dagokionez, euskararen presentzia areagotzeko plana bultzatuko du Udalak, Arabako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean.
- Gasteiztarrek Udalarekin ekimenak zein komunikazioak euskaraz egitea sustatuko da. Horretarako, administrazio euskaldun bat bermatzeaz gain, euskaraz jardutea erraztuko duten neurriak hartuko dira: administrazioaren lehen hitza euskaraz bermatuz, langile euskaldunek euskaraldiko identifikazioak eramanetz, eta abar.
- Udalerria zein administrazioa euskalduntzeko xedearekin, Gasteizko Udalak Euskara Zerbitzua ahalduentzeko konpromisioa hartuko du. Era horretan, zerbitzu honek gainontzeko sail edo espaziotan eragiteko duen gaitasuna handituz eta lankidetzarako aukerak zabalduz.
- Euskara Sustatzeko Ekintza Plan (ESEP) berria onartu ondoren, Udalak prozesu parte-hartzailea abian jarriko du euskalgintzarekin batera Gasteizko Euskara Ordenantza prestatzeko.
- Udalak Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) bitartez euskarazko komunikabideei ematen dizkien diru laguntzak berrikusi eta dirusailak eguneratuko ditu.
- Udalaren Euskara zerbitzuak sektore ekonomiko ezberdinetara bideratutako ikastaro trinkoak eta bitartekoak sortuko ditu, haien hizkuntz paisaia euskaldundu, eta oinarritzko jarduna euskaraz ere eskaintzeko erraztasunak emateko.
- Gasteizera Euskal Herritik kanpo iritsitako pertsonen euskarara gerturatzeko programa bat jarriko du martxan Udalak. Haien jatorrizko hizkuntza eta kulturak balioan jarri euskarari haien komunitateetan zabaltzeko mekanismoak eskaini eta euskarak eskaintzen dituen aukera sozial, laboral, pertsonal eta abarrek gerturatu. Aniztasun eta Elkarbizitza alorrekin elkarlanean garatuko da programa.
- Euskaraz bizi diren familien eta ikasgeletatik kanpo ingurune euskaldunak ez duten adingabeen arteko truke programa abian jartzea. Azken horiei aisialdian eta eguneroko bizitza euskaraz erabiltzeko aukera eskainiz. Elkartrukeak astebetekoak izango dira, adin ezberdinetara egokituta eta guraso-elkarrekin lankidetzan.

ehbildu

- Udalak kontratazioetako klausuletan enpresei ezarritako hizkuntza irizpideak aztertuko ditu, horiek eguneratu eta herritarrei euskarazko zerbitzua bermatzen zaiela ziurtatzeko.

3.7.- Hiri hezitzailea

- Segregazioa
 - Eskola eraikinak legealdi osoan hobetzeko finantzaketa plana. Lehenetsuna izango dute bereizketa maila handiena edo ISEK indize handiena duten zentroek (Indize Sozioekonomiko eta Kulturala).
 - Gasteizko Udal Eskola Kontseiluaren bitartez, Hezkuntza eta Aniztasunari buruzko erakunde arteko mahaia berriro biltzea.
 - Gaur egungo eskola segregazio egoerak zuzentzeko matrikulazio prozesuak abian jartzea.
 - Ikastetxe bakoitzari inklusio-indizea aplikatzea: ikastetxe batek duen inklusio gaitasuna, hau da, zer neurritan, txikia edo gehiegizkoa, ikastetxe batek bere gain hartzen dituen egoera zaurgarrian dauden edo arreta eta/edo laguntza handiagoa behar duten ikasleak. Indize horren arabera, behar diren laguntza eta bitartekoak eskainiko zaizkie.
 - Segregazio indize handiena duten ikastetxeentzako diskriminazio positiboko politika bultzatzea udalarekiko harremanean eta eskola populazioari zuzendutako programa guztietan.
 - Desabantaila egoeran dauden ikasleei eta familiei laguntzeko neurriak ezartzea.
 - Hainbat ikastetxetako guraso elkarten arteko koordinazioa bultzatzea udaletik, jarduera komunak sustatuz, hala nola hitzaldiak, guraso eskolak, hezkuntza zerbitzuen kudeaketa partekatua, etab.
 - Bizikidetzaren eta Dibertsitate Sailak eskolei eta familiei laguntzea, hainbat jatorritako pertsonen eskola bizikidetzaren esperientzia bizitzen lagunduko duten bizikidetzaren eta kulturartekotasun planak gara ditzaten.
 - Hezkuntza sailean jarraipen batzorde bat abian jartzea, proposatutako neurriak nola bete diren ebaluatzeko.
- Hezkuntza zentroetan esku-hartzeak
 - Udalak laguntza teknikoa eskainiko du eskola baratzak eta konpostatze eremuak sortu eta mantentzeko.
 - Eskola patioen batzordea abian jarriko da, eta batzorde horrek beharrezko esku-hartzeak diseinatuko ditu, lehenetsuna emanez

ehbildu

segregazio-maila handieneko edo ISK indize handiagoko (Indize Sozioekonomiko eta Kulturala) ikastetxeetan jarduteari.

- Hezkuntza sailak laguntza teknikoa emango du eskolako jolastokiak birmoldatzeko, espazioak birnaturalizatzeko eta berdintasunez erabiltzen laguntzeko.
- Auzoaren eta eskolaren arteko lotura sustatzea. Zentzu horretan, eskolekin batera patioak auzora irekitzeko aukerak aztertzea.

- Udal hezkuntza jarduerak

- Sail bakoitzaren jarduera eskaintza hobetzea eta eguneratzea, urtero parrilla berritu bat eskainiz, jarduera berrieekin.
- Udalaren hezkuntza jardueren eskaintza espezializatzea, eta beste kolektibo batzuetara bideratzea eta irekitzea: helduak, adinekoak, kultura-aniztasuna eta/edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak.
- Hezkuntza Saitetik orientabideak ematea profesionali, hezkuntza jarduerak behar bezala hauta ditzaten.
- Udaletako hezkuntza jarduerak sekuentzialki antolatzea eta 'curriculum' bat diseinatzea; aukeraketa ez dadila izan ikastetxeko profesional edo baliabide bakoitzaren iritzia araberakoa, baizik eta jarduera horietan parte hartzeko modua diseinatu ahal izatea, curriculumarekin edo kolektibo bakoitzaren helburu eta beharrak aintzat hartuta.
- Euskarazko jardueren eskaintza handitzea eta hobetzea haurrentzat. Biztanleria migratzailearen tasa handiena duten zentroak identifikatzea eta jardueretan parte hartzen laguntzea.

- Udal haurreskolak

- Partzuergoaren haurreskolekin koordinazio maila hobetzea, matrikulazioen kudeaketa bateratu eta eraginkor bat lortzeko,

- Hezkuntza komunitatea

- Hezkuntza Saitetik Guraso Elkarteei ematen zaizkien dirulaguntzen jarraipena egitea eta kudeatzen laguntzea. Hezkuntza eremu guztietan guraso elkarteak sortzen laguntzea, segregazio maila handiena duten ikastetxeei arreta berezia eskainiz.
- Hezkuntza-guneak (haurreskolak, eskolak, institutuak) komunitateari irekitzea: jolastokiak eskola jardueren ordutegitik kanpo irekitzeko ordutegiak jartzeko aukera aztertzea, komunitatean erabiltzeko.

ehbildu

- Eskola inguruetan espazio publikoak birmoldatzea, haurrentzat eta gazteentzat gune atseginak izan daitezten.
 - 'Bide seguruak' programa diseinatzen laguntzea: behar adina egitura eta laguntza sortzea, haurrak etxetik ikastetxera modu autonomoan eta seguruan joan eta itzul daitezten bermatzeko.
 - Euskarazko jardueren eskaintza handitzea eta hobetzea haurrentzat. Biztanleria migratzailearen tasa handiena duten zentroak identifikatzea eta jardueretan parte hartzen laguntzea.
- Hezkuntza ez arautua
 - Hainbat kultura jatorri dituzten pertsonak Dantza Kontserbatorioan, Musika Eskolan eta Arte eta Lanbide Eskolan sar daitezten sustatzeko kanpaina.
 - Beharrezko hitzarmen eta akordioak ezartzea, Udal Musika Eskolak eta Dantza Kontserbatorioak Zaballako espetxe barruan prestakuntza eta jolas jarduerak garatu ahal izan ditzaten, presoak gizarteratzeko eta sozializatzeko tresnak izan daitezten.
 - Euskarazko jardueren eskaintza handitzea eta hobetzea haurrentzako. Biztanleria migratzailearen tasa handiena duten zentroak identifikatzea eta jardueretan parte hartzen laguntzea.

3.8.- Eskubideak dituen hiria

- Giza eskubideak
 - Giza Eskubideen Behatokia sortuko da, Nazio Batuen azken jarraibideei jarraituz. Gidalerro horien arabera, toki-administrazioek funtsezko zeregina dute giza eskubideak betetzeko.
- Memoria
 - 2026an 50 urte beteko dira martxoaren 3an Gasteizen sarraskia gertatu zenetik. Erakundeek Gasteizko langile borrokaren memoriarekin duten zor historikoa kitatzeko, protagonismoa emateko eta zailtasun guztien gainetik lehen egunetik sarraskia salatzen eta Justizia aldarrikatzen 50 urtez aritu diren pertsonen eta kolektiboen lana aitortzeko antolatuko da 'Gasteiz 1976-2026: Martxoak 3: 50 urte', programa, Martxoak 3 Elkartearekin zuzeneko lankidetzan, proposatutako ardatz hauen gainean:
 - 'Gasteiz 1976-2026: Martxoak 3: 50 urte' literatur lehiaketa. 2025/2026 ikasturteari begira, Martxoak 3 elkarteak landutako unitate didaktikoen inguruko lan dinamika bat helaraziko zaie hiriko ikastetxeei. Ikasturtea hastearekin batera, Gasteizko langileen memoriari buruzko literatur lehiaketa bat egingo da, 1976ko greba prozesua eta langileen sarraskia erreferentzia gisa hartuta. Gasteizko ikasleek egindako kontakizunek literatur lehiaketa batean parte hartuko dute. Horretarako, epaimahai bat sortuko da, eta 2026ko martxoaren 3an emango da lehiaketaren emaitzen berri.
 - 'Gasteiz 1976-2026: Martxoak 3: 50 urte' argazki erakusketa ibiltaria. 1976. urteko greba prozesuaren urtemugarekin bat eginez, 2026. urtean urtarriletik martxora hiri osoan eta bereziki prozesu hartako une garrantzitsuenak gertatu ziren lekuetan (lantegiak, elizak, plazak, eraikinak). Sarraskian amaitu zen greba prozesu horretan hiru hilabetez parte hartu zuten pertsona guztiei omenaldi kolektiboa izango da.
 - Memoria tokiak seinaleztatzea. Aurreko puntuari dagokionez, 1976. urteko langileen borroken eta errepresioaren agertoki izan ziren espazio horiek hirian markatzea proposatzen da.
 - 'Gasteiz 1976-2026: Martxoak 3: 50 urte' nazioarteko jardunaldiak. Zaramagako sarraskiaren 50. urteurrena dela eta, begirada globala egingo zaie langileen borrokei eta Estatuaren indarkeriaren ahanzturaren eta

ehbildu

zigorgabetasunaren aurka lan egiten duen nazioarteko mugimendu memorialistari.

- Kontzertua: 'Gasteiz 1976-2026: Martxoak 3: 50 urte'. Musika izan da Martxoaren 3ko oroimenaren oinarrietako bat. Gasteizko sarraskiaren salaketa, besteak beste, gure hirian gertatutakoa kontatu eta kantatu duten 40 abestiei esker transmititu da. Lluís Llach 1977ko lehen urteurreneko kantutik MICEK aurkeztutako azken arte, 2023ko azken urtemugan. Errepertorio zabal horretan oinarrituta, kontzertu handi bat antolatuko da martxoaren 3ko biktimen oroimenez eta omenaldiz.
 - Memoria-Gasteiz ibilbide antifaxista abian jartzea, gizarte bidezkoago bat eraikitzeko hainbeste pertsonak egin duten ekarpena ezagutarazteko eta aitortzeko, kasu askotan, kontakizun ofizialean isiltasunera baztertuak izan diren pertsonak. Honako mugarri hauekin:
 - Borroka prozesu eraldatzaileetan (feminismoa, langileen borroka, frankismoaren aurkako erresistentzia, ekologismoa, gizarte-mugimenduak...) parte hartu zuten eta Gasteizekin lotuta dauden pertsonen zerrenda egitea.
 - Haien biografiak hiriko hainbat lekutan paratzea (jaiotza, bizilekua, lantokia, atxiloteta edo heriotza).
 - Memoria-Gasteiz ibilbide antifaxista sortzea eta seinaleztatzea, hiriaren mapa batean pertsonaia horiek guztiak batu ditzen, beren borroka emantzipatzaile guztiak gogoratzeko eta aldarrikatzeko bidean.
 - Aldi berean, eta Gasteizen instalatuta dauden memoria marken matxurak ikusita, horien berrikusi, eguneratu eta hobetuko dira.
 - Gasteizko kale-izendegiaren berrikusketa kritikoa, eta ohore guztiak behin betiko kentzea diktadura frankistako arduradun politiko, militar eta erlijiosoei (1936-1978 aldiko alkate eta gotzainei barne).
 - Frankismoaren krimenen aurkako kereila bateratua. Mugimendu memorialistaren eskariari erantzunez, EH Bilduk kereila judiziala bultzatuko du Gasteizko Udaletik, errepresio frankistaren biktimekin eta haien senideekin batera.
- Segurtasuna

ehbildu

- Herritarren Segurtasunerako Plan Estrategiko berri bat egitea, Gasteizerako polizia-eredua zehazteko, honako printzipio hauekin:
 - Pertsona guztientzako giza eskubide guzten bermean oinarritutako ikuspegia.
 - Prebentzioaren kultura sustatzea.
 - Hurbileko polizia-arreta indartzea.
 - Gainerako polizia zerbitzuekin eskumen banaketa eta koordinazioko arloak definitzea.
 - Udaltzaingoaren prestakuntza, gaikuntza eta etengabeko hobekuntza.
 - Gainerako udal sailekin zeharkako lankidetzarako tresnak ezartzea, bereziki berdintasuna, bizikidetzeta eta aniztasuna, edo gazteria bezalako arloetan.
- Herritarren Segurtasunerako Plan Estrategiko bat egitearekin batera, parte hartzeko prozesu bat egingo da, herritarrei irekia, eta talde politikoen parte-hartzea bideratuko da, poliziaren lantalde tekniko-politikoaren bidez.
- Udaltzaingoan agente berriak sartzeko prozesua antolatzea. Oposizio-prozesuak aldeztatik aurretik planifikatzea, Gasteizko Udalaren eremuan polizientzako lan-eskaintza publiko propioak berreskuratzeko.
- Indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko unitateetako taldeak eta adingabeen arloa indartzea.
- Bizikletan doan polizia zerbitzua urte osora hedatzea.
- Auzo elkarten eta Udaltzaingoaren arteko auzo koordinazioko pertsona berreskuratzea, udaltzaingoan erreferentziazko pertsona batekin, prebentzioa hobetzeko.
- Babes-bermeak eta jardunbide egokiak eskaintzeko mekanismo gisa, udaltzainek beren jarduketetan gorputz bideokameren erabilera arautuko eta hedatuko dute, irudiak eskuratzeko baldintzak eta herritarrek pribatutasunerako duten eskubidea kontuan hartuta.
- Polizia komunitarioaren kontzeptuan aurrera egitea, elkarrizketarako eta lankidetzarako espazioak irekiz sailaren eta hainbat eremu eta sektoretako gizarte eragileen artean, bai udalerri osoan, bai auzo bakoitzean.

ehbildu

- Udaltzainek berdintasunean, LGTBI+ eskubideetan eta sexu-aniztasunean, bizikidetzan edo kultura aniztasunean prestatzeko dituzten aukerak hobetzea eta zabaltzea.

3.9.- Hiri solidarioa

- Bizikidetza
 - Harrera udalerrira iritsi berrientzako informazio eta orientazio zerbitzua martxan jartzea, herritarren arretarako zerbitzuaren barruan. Honako helburu hauekin:
 - Gasteizera bizitzera iristen diren eta hala eskatzen duten pertsona guztientzako arreta eta udal zerbitzuetara sarrera gisa funtzionatzea, arreta integrala eta pausatua emanez, eta udalerrian lehen urratsak eta ohiko izapideak egitea erraztuz.
 - Harrera protokolo bat egitea, Gasteizera etorri berriei egingo zaiena: harrera administrazio publikoaren erantzukizuntzat hartzen da.
 - Gasteizko aurkezpen bat eta eskura dauden zerbitzu eta baliabideei buruzko oinarritzko informazioa bilduko dituen gida bat egitea.
 - Lehen mailako harrera egiteko langile espezializatuak izatea, hizkuntza anitzetan arreta bermatua dutenak.
 - Lankidetza eta koordinazio zuzena Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuarekin eta gainerako sailekin, premia zehatzei azkar erantzuteko edo bideratu ahal izateko.
 - Kulturarteko Bitartekaritza Komunitarioko Zerbitzua abian jartzea, bizikidetzaren eta aniztasunaren zerbitzuaren barruan. Eginkizun hauek izango ditu:
 - Gatazkak konpontzeko eta bizikidetzarako tresnak ematea komunitateari.
 - Bitartekariak osatzen dute, auzoetan auzo-elkarteei edo hala eskatzen dutenei laguntzeko funtzioa izango luketenak, bizikidetza hobetzeko eta gatazketan bitartekari izateko.
 - Auzoko harrera sareak bultzatzea eta koordinatzea arreta komunitariorako:
 - Bizikidetza eta aniztasun zerbitzuarekin zuzenean koordinatuta jardungo lukete.
 - Harrera eta bizikidetzarako sukurtsal deszentralizatuak izango lirateke.

ehbildu

- Alde Zaharrea lehendik dagoen sarearekiko koordinazioa bultzatzea eta hobetzea, eta beste auzo batzuetan antzeko sareak sor daitezen bultzatzea.
- Arraza diskriminazioa ezabatzeko ekintzak. Giza Eskubideen Behatokiaren barruan landuko da gai hori, honako eginkizun hauekin:
 - Arrazakeria, islamofobia, xenofobia eta abarren inguruko kexak, salaketak eta zalantzak jasotzea.
 - Hiriko arrazakeriaren bilakaerari eta hobetzeko beharrei buruzko urteko txostena egitea.
 - Arrazakeriaren aurkako pedagogia eta sentsibilizazioa sustatzea hirian.
- Lankidetz
 - Udalaren urteko aurrekontuaren %1 garapenerako lankidetzara bideratzeko konpromisoa gauzatzea.
 - Udal mailako garapenerako politiken koherentzia indizea aztertzea.
 - Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren aldeko apustu irmoa, elkartasun-politiken funtsezko elementu gisa.

3.10.- Hiria baino gehiago: udalerriko herriak

- Nekazal eremua
 - Landa eremurako aholkularitza zerbitzua jarriko da martxan, herri bakoitzarentzat interesgarriak izan daitezkeen gaiak lantzen errazteko, hala nola: instalazio berriak ezartzea, elikatzeko eskubidea, lurzorua kalitatea ezagutzea, etab.
 - Garraio publikoaren bidezko mugikortasunaren aldeko apustua. ACOVIrekin lankidetzan, BUX zerbitzua hobetzeko aukerak aztertzea, herrietako bizilagunen beharrei erantzun ahal izateko.
 - Kontzejuetan herritarren partaidetza handitzea. Horretarako, kontzejuekin lan espezifikoak egingo da, bakoitzaren beharrak zein diren ikusiz eta kontzejuetan herritarren parte-hartzea areagotzeko eta komunitate zentzua eraikitzeko neurri espezifikoak ezarri.
 - Kontzeju bakoitzaren nortasuna babesteko neurriak.
 - Gasteizko estrategia agroalimentarioa garatzea, udalerriko herriek lehen sektorean duten garrantzia azpimarratuz.
 - Pixkanaka bizikleta-sare bat sortzea, herri bakoitzetik hirira eta inguruko herrietatik bizikletaz segurtasunez mugitzeko aukera emango duena.
 - Lehen sektoreak landa-eremuan jarrai dezan erraztea eta landa-eremuak udalerrinari ematen dion garrantzia eta balio erantsia aitortzea.